

Mali-Azawad

Inperialismoak uranioa
bereganatzen jarraitzen du



- **Siriako gatazka** Frankotiratzaille baten egunerokoa
- **Auzolana** Krisi garaian indartzen ari den eredua
- **Eric Dicharry**, artista eta antropologoa «Harrizko etxea bezala ikusten dut bakea, eta bakoitzak bere harria ekarri beharko dio» • **Argia Sariak 2013** Azpimarra, dantzan.com, bertsoa.com, Edu Lartzanguren, Herrira, Euskadi Irratia

EUSKAL KULTURAREN URTEKARIA 2012

- **Alberto Barandiaranen urteko kronika**

"Soziolinguistika, berriro"

- **2012an nabarmendu ziren proiektuak**

Hezkuntzako mobilizazioak, Xora filma, crowdfunding-a, Xiberoko Ikastolen Ikasle Ohiek Maskarada bere gain hartzea...


- **ARGIAko adierazpen biribilen bilduma**

- **Joerak, aurrera begira**

- Patxi Baztarrika hizkuntza politikaz
- Joxe Rojas teknologia berriez,
- Ander Gortazar kulturarik gabeko kulturaz,
- Iñaki Martinez de Luna euskararen erabileraz,
- Aitor Etxabe hezkuntza krisiaz,
- Mikel Irizar tokiko hedabideen talaiatik

- **Arloz arloko kronikak eta datuak**

- **Euskal Kulturaren Aurkibidea**





Azaleko argazkia:
NOCTURNO CULTO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asumendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko otsailaren 3a, 2.355. zenbakia

ASTEKO GAIA

AUZOLANA Herritik herriarentzat. UXUA LARRETxea / 4

PERTSONAIA

FELIX RAZKIN: «Michelinen gorabeherak izan nituen, Tximisten ere bai, gehiegi konprometitzen nintzen».
MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIAK

HEZKUNTZA Eredu finlandiarraren gakoak.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 15

SIRIAKO GATAZKA Frankotiratzaille baten begietatik.

ANDONI LUBAKI / 16

IRITZIAREN LEIHOA

USTELKERIA ETA ERAKUNDEEN UTZIKERIA

GARBINE BIURRUN MANCISIDOR / 20

LITERATURA ASKATZAILEA JON ALONSO / 22

CALVET BAROMETROA: EUSKARA DA MUNDUKO 51.

HIZKUNTZA KIKE AMONARRIZ / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Lance. AMETS ARZALLUS / 22

BERTSO BERRIAK Abra malkotan. AINGERU BASTERRETxea / 23

ERDIKO KAIERA

ERIC DICHARRY: «Herriaren hitza entzun dadin xerkatzen ditut bideak, artean eta antropologian». G. UBEDA GOIKOETXEA / 24

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URIA, G. UBEDA GOIKOETXEA / 28

MUSIKA MONTSEERRAT AUZMENDI / 29

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30

ALEA Itzulerarik gabeko agurra. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 31

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 33

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

TERMOMETROA

ARGIA SARIAK 2013

- Aterruna ekaitzaren erdian. URKO APAOLAZA AVILA / 35
- EITB eta herri ekimeneko hedabideak. XABIER LETONA / 37
- Urteetan ereindakoaren uzta. IURE EIZAGIRRE / 38

PANKARTETAKO HIZKUNTZA Aldarrikapenaren erretratu linguistikoa. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 40

EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 42

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 42

NET HURBIL Mali-Azawad: gerra inperiala etxe atarian daukagu. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 43

MALIKO GERLA: NOLA ZAINDU FRANTZIAREN URANIO HORNITZEA STÉPHANE LHOMME / 45

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 46

Herritik herriarentzat

“Behar bat agertzen denean hainbat modutan ase daiteke, baina auzolanaren gaineko hautu bat egiten dugunean erabakitzen dugu taldean aritzea, guk hartzea zeregin hori gauzatzeko ardura, eta, elkartasunaren balioan oinarrituz –elkarri lagunduz– aritzea”. Jasone Mitxeltorenaren *Auzolanaren kultura* liburua (Txalaparta, 2011) abiapuntu hartuta, auzolanaren hainbat adibide ezagutu ditugu gertutik.

| UXUA LARRETXE |

Argazkiak: Dani Blanco

ELKARTASUNAREN BALIOA, komunitatearen garrantzia eta burujabetza. Horratx auzolanaren kultura osatzen duten balioak. Egitura berdintzailea dela ere azpimarratu digu Mitxeltorenak: “Izanen dira lan batzuk indar handiagoa eskatzen dutenak, beste batzuk ezagutza handiagoa, baina auzolana egiten den herrietan ikusten dugu herritar bakoitzari bere ahalmenen arabera ekarpena egiteko aukera ematen zaiola”. Auzolanari buruz jardutean, etxalartarrak interesgarria deritzo *anxo* hitzak duen esangura aztertzeari; izan ere, historikoki ikus dezakegu auzoak antolakuntza sistema bat zirela, lotura hagitz estuak zituen komunitate sendo bat, auzo komunitatea alegia. Joxe Migel Barandiaranek zioenez, auzotasuna ez zen momentu jakin batean elkarren ondoan bizi ziren etxeko bizilagunen arteko harremana soilik, baizik eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen ziren betebeharrak eta eskubideak ezartzen zituen figura bat.

Gurean auzolanaren bidez hainbat lan burutu izan da eta burutzen da egun ere. Tradizionalki, auzolana definitzerakoan nagusiki herri bateko azpiegitura komunak eraikitze, zaintzeko eta mantentzeko sistemari erreferentzia egin zaio; hala nola, bideak, zubiak, iturriak, ur-askak edota ur-bideak. Alabaina, Mitxeltorenak gogorarazi duenez, “batzuetan auzolana deitu izan zaio etxe jakin bateko beharra asetzeko egin den lanari”.

“Zarauzko torreoia zaharberritzeko saiakeran erantzuna izan da ez zegoela baliabiderik. Aitzitik, herri moduan horrelako lan bat egiteko gai izan gara, eta horretaz jabetzea sozialki kristorena da”

Inhar Agirrezabal,
Hatorr auzolanera!

Gizartea aldatu ahala, auzolanaren adierazpena ere itxuraldatuz joan da zenbait kasutan. Amaiurren (284 biztanle zituen 2010ean), esaterako, kulturaren alorretik heldu diote eredu honi, eta hala, auzolan bidez egiten dituzte herria eta bertako ondarea jendarteari zabaltzeko bisita gidatuak. “Herria dinamizatzeko eta herritarren ahotik hemengo historiaren berri izateko helburuarekin sortu da ekimena”, azaldu digu Juan Mari Aleman Amaiurko zinpeko alkate izandakoak. Bestelako ekimenak ere gauzatu dituzte, ildo beretik, iaz uztailan estreinatu zuten *Amaiur 2012: Haien ametsa gurea da* ikuskizun artistikoa kasu. “Iparraldekoekin elkarlanean Nafarroako eta bereziki Amaiurko historia kontatzen zuen emanaldia izan zen”. Aranzadiko kideekin batera, Amaiurko gazteluko indusketa lanetan laguntzen ere bizilagunak aritzen dira udaro. Alemanek nabar-

menu duenez, Amaiur herriaren kasuan iraganeko ondarea berreskuratzeko ezinbesteko baliabidea izaten ari da auzolana. Urtero errepikatzen den auzolana ere aipatu digu zinpeko alkateak: besten aitzinetik herria bera eta baserrietara iristeko bide nagusiak garbitzen dituzte denek artean.

Amaiurtarrak eta zarauztarrak herria biziberritzen

Herri txiki, ertain nahiz hiri handiagoean egiten da auzolana. Nabarduz mintzatu zaigu Jasone Mitxeltorena: “Leku fisikoak baino, kultur ereduak bereizi beharko geni-

tuzke. Hau da, izan daiteke fisikoki herria, baina herri izatearen sentsaziorik ez izatea edota auzokoen arteko harremanik ez egoitea”. Errealitate hori azken hamarkadetan gailendu da, etxebizitza eraikitze handiek eraginda batik bat. Hirietan –duten egituragatik– ez da hain erraza horrelako harremanak sortzea. Aitzitik, gerta daiteke auzo batean komunitate lotura estua izatea, eta kasu horietan, elkarlanean aritzea. Jai herrikoiak, auzo elkarteak, gaztetxeak... dira horren adibide, Euskal Herrian dugun herri mugimenduan aberatsetan joera handia baitago auzolan antolatzeko.

Zarautzen, esaterako, Hatorr auzolanera! ekimena abiarazi dute, galdurik dagoen auzokideen arteko harremana sendotzeko zein herria biziberritzeko asmoz. Zarautz ez da txikia (22.652 biztanle ditu) eta komunitatea sortzeko zailagoa da, baina horretan ari dira, proiektuko kide Inhar Agirrezabalen arabera: “Lan egiteko bitarteko komunitario bat sustatuz eta elkartasunean oinarrituz, eragile eta elkarreentzat topagune izan nahi dugu, behar batzuei erantzuna emateko eta komunitate sentsazioa garatzeko”.

Hainbat zarautzar batu da auzolanaren inguruan teoriatik praktikara jauzi egin nahian, eta era berean, ondarea berreskuratzen. Izan ere, ehun urte bete dituen torreoia erortzekotan zegoen, eta historikoki zuen balioaz jakitun, zaharberritzea erabaki zuten. Horrekin batera, natur taldearekin elkarlanean espezie inbaditzaileak garbitu eta auzo konpostguneak eraiki dituzte. Dagoeneko martxan da eta zortzi familiak konposta egiten dute bertan. Agirrezabalen esanetan, lan horiek aurrera ateratzeko denetariko jendea bertaratu da. Egutegi bat diseinatzekotan dira, eremu ezberdinetan jarduten dutenekin auzolan zehatzak burutzeko.

Larrialdiei erantzuteko

Larrialdi egoerek ere batzen dute jendea. Iazko azaroko uholdeak ditugu lekuko: Donostiako Martutene eta Loiola inguruak garbitzeko bizilagunen laguntza eskatu zen, eta ondo erantzun zuen jendeak. Baliabide ekonomikorik ez dagoenean, irtenbide aproposa da auzolana. “Nafarroako eta Arabako herri txikietan ez dute beste hainbat herri adina diru-laguntzarik, eta auzolanari esker egin edo moldatu izan dituzte frontoiak, baselizak, herriko plazak eta karrikak”. Amaiurren kasuan, adibidez, independentea zenean –1969. urtean sartu zen Baztanen egitura pean–, baliabiderik ezean auzolan bidez egiten zituzten lan gehienak.

Beharrei aurre egiteaz gain, bestelako onurak dakartza auzolanak, horren agerikoak ez



Inhar Agirrezabal, 100 urte bete dituen torreoiaaren aurrean. Erortzeaz zen eraikina zaharberritzen ari dira herritarrek. Manu Urbieta eskultore zarautzarrak auzolanari eskainitako eskultura ageri da Agirrezabalen alboan.

izanagatik zinez baliotsuak. Elkarriketatuek, nagusiki, herrian eta herritarren artean sortzen den harremanean eta kohesioan duen eragina goraipatu dute: “Auzolana egiten duten edo egin izan duten herrietan komunitate lotura estua dago eta horrek ahalbidetzen du taldean aritzea eta gauzak egin ahal izatea sistema honen bidez”, azpimarratu du Mitxelorenak. Herritarren arteko harremanak sendotzen laguntzen du eta hori, gerora, egunerokoan mantendu eta nabaritzen da. Juan Mari Alemanek gaineratu duenez, “ilusioa sortzen du, auzolanera joaten denak lan



Juan Mari Aleman, auzolan bidez zaharberritutako fatxadaren aurrean. Amaiur independentea zenean, udaletxea zen hau.

egiteaz gain ongi ere pasatzen duelako eta sentsazioa arras ona izaten da. Hemen denok elkar ezagutzen dugun arren, elkarbizitza sendotzen laguntzen du”.

Mitxeltorenak beste ezaugarri bat azalera-tu du: “Oraindik ere auzolana martxan duten herrietan azpimarratzen dute norberaren herriaren alde egiteak dakarren asebetetzea”.

“Ilusioa sortzen du, auzolanera joaten denak lan egiteaz gain ongi ere pasatzen duelako eta sentsazioa arras ona izaten da. Elkarbizitza sendotzen laguntzen du”

**Juan Mari Aleman,
Amaiurko zinpeko alkate ohia**

Halaber, gauza jakina da norberak bere eskuekin egin duena hobeto zaintzen duela, bere egiten duelako nolabait. Inhar Agirrezabalek Zarauzko esperientzia du hizpide: “Torreoiaren kasua oso esanguratsua da; bi hamarkadetan zehar zaharberritzeko saiakerak egin izan dira eta jasotako erantzuna izan da ez zegoela baliabiderik, errentagarritasunik ikusten ez ziotelako. Aitzitik, herri moduan horrelako lan bat egiteko gai izan gara, eta horretaz jabetzea sozialki kristorena da”. Herri eta komunitate gisa askatasuna dakar auzolanak, hori ere ez da ahantzi behar.

Batzuetan araututa, besteetan hautazkoa

Gaur arte iraun duen lan-moldea izanik, zenbait lekutan arautu ere egin dute auzolana. Nafarroako eta Arabako herri txiki askotan auzolanaz mintzo diren ordenantzak aurki ditzakegu. Nafarroa Garaian, Tokiko Administrazio Legediak dio udal eta kontzeju guztiek dutela aukera beren legetan lan sistema hau ezartzeko, baldintza batzuk jarraituz. Amaiurren kasuan, lehen derrigorrezkoa zen auzolana, nahiz eta borondatezko lanak ere beti egon izan diren. “Duela urte batzuk auzolan garrantzitsuak egin ziren, hilerria konpondu eta Amaiurko ur-sarea garbitu, besteak beste,

Burujabetza helburu

EUSKAL HERRIAN AUZOLAN ekimena (www.auzolan.info) auzolanaren kultura ondarea onartzeko, indarberritzeko eta zabaltzeko sortu zuten. Usurbilen lehen topaketa egin zuten eta bigarrena Altsasun, pasa den irailean. “Egungo jendarte ereduarekin gure beharrak asetzea ezinezkoa dela ikusirik, bertze eredu baten bila hasi ginen, eta, ohartu ginen

bazirela dagoeneko Euskal Herrian bertan eta Euskal Herritik at hainbat mugimendu norabide horretan lanean zebiltzanak; bide horretan sakondu nahiak eraman gintuen Auzolan mugimendua sortzera”, azaldu du Jasone Mitxeltorenak. Egun ez bezala, garai batean herrietan nola eskualdetan buruaskitasun maila handia zen eta hori berreskuratzeko xede

garbia dute. Horretarako, molde berrietara egokitu nahi dituzte antzinako erreferenteak. Tokian tokiko burujabetza lortzea, bai eta Euskal Herri kanpokoekin sare moduan jokatzeko dituzte helburu. Hots, lekuan lekuko ekimenak sustatzea eta Euskal Herrian abian diren esperientziak jaso eta elkarrekin harremanetan jartzea, elkarlotzea eta zabaltzea.



Amaiurko mugarri eta gaztelu inguruan, Aranzadiko kideekin batera indusketa lanetan laguntzen aritzen dira bizilagunak udaro.

eta horretarako egutegi batean zehaztu zen nork aritu behar zuen zein egunetan. Ager-tzen ez bazen, 30 euroko isuna ordaindu behar izaten zuen”, azaldu digu Alemanek. Egun, nahi duenak parte hartzen du, boron-datezko lan bilakatu da; “halere, bada jendea auzolanera joaten ez dena, baina egin-dakoa eskertu nahirik jatekoak eta edatekoak eramaten dituenak. Beste batzuek berri, dirua ere ematen dute dauden gas-tuei aurre egiteko”.

Alabaina, urteen poderioz auzolana gauza-tzeko baldintzak zorroztu direla gogorarazi du Mitxeltorenak, ezbeharren bat gertatuz gero segurua izatea kasu, eta horrek auzolana ordenantzetan ezartzeko unean eragozpenak sor ditzakeela uste du. Bestelako zailtasunak ere badaude, tartean azken hamarkadetan bizi izan dugun oparotasun materialak jendea kul-

turalki aldatu izana. Dena den, arrazoizkoa litzateke pentsatzea bizi dugun krisiak berpiz-tu dezakeela auzolana, besteak beste udalek ez dutelako garai batean zuten baliabide eko-nomikorik hainbat eginbeharri aurre egiteko. “Jende batek uste du udalaren ardura direla egiteko, baina udal eta gobernuetatik gero eta baliabide gutxiago iristen da”, gogoratu du zarauztarrak.

Etxalartarrak, ildo beretik, ez du uste egungo sistemaren porrotak automatikoki ekarriko duenik auzolanerako edo kolektibo-ki gure beharrak asetzeko joera. Nolanahi, auzolanak bere baitan dituen filosofia eta baloreak bizirik ikusten ditu Euskal Herrian, eta horren erakusle dira azken urteetan abia-razi diren ekimenak.

Egitasmoak herritarrek eurek abiarazi dituzte batzuetan, eta udalak izan dira akuilu



Foie plantxan

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com



**“Gure arbasoek emandako
ondare honi esker bizirik iraun
dugu herri moduan XXI.
mendera arte, eta hemendik
aitzinera ere, herri nola
pertsona gisa bizirautean
lagunduko digu”**

Jasone Mitxeltorena,
Auzolanaren kultura

bestetzueta. Historikoki batzarrari lotuta egon da eredu, Mitxeltorenaren hitzetan: “Batzarretan herritarrek zuzenean hartzen zuten parte eta erabakitzailea zen, herriari zegozkion kontuak bertan erabaki, antolatu eta auzolan bidez gauzatzen zituzten”. Batzar horien bidez jarraitzen dute Amaiurren auzolana kudeatzen. Egin nahi diren lanen proposamenak bertara eramaten dira eta aurrera egin edo ez erabakitzeaz gain, auzolan horretarako araudi zehatza finkatzen da. Materiala erosteko dirurik ba ote dagoen eta dirua nondik lor daitekeen ere eztabaidatzen dute, besteak beste. Batzarra herritar orori irekia dago eta zinpeko alka-



arabako
bertsozale
txapelketa
2013 lotu!

www.arababertsozale.org



www.alarva.net



EL CORREO



3.Kanporaketa Otsailak 1, ostirala, Aguraingo Aitzuri Elkarte, 21:00



Oihane Perea, Ruben Sanchez, Felipe Zelaleta, Andere Arriolabengoa, Iker Olabarrieta, Jon R. de Pinedo
Gai-jartzailea: Aintzane Irazusta

4.Kanporaketa Otsailak 2, larunbata, Laudioko Basalarrina Elkarte, 21:00



Ander Solozabal, Izar Mendiguren, Serapio Lopez, Beñat Oribe, Iker Pastor, Jagoba Apaolaza
Gai-jartzailea: Veronica Domingo

5.Kanporaketa Otsailak 3, igandea, Lantziegoko Iradier Taberna, 14:30



Manex Agirre, Zigor Enbeita, Juan Mari Juaristi, Ainhoa Comas, Unai Bengoetxea, Iñaki Tena
Gai-jartzailea: Alazne Garcia



Jasone Mitxeltorenak utzitako irudi honetan, etxalartarrek auzolanean zaharberrituriko kisu edo kare-labea ikus dezakegu.

teak eta lauzpabost kargudunek kudeatzen dute, horiek arduratzen dira batzarra deitzeaz eta bando bidez zabaltzeaz.

Egun, oro har erabakitze gune horiek herritarrengandik urrundu dira eta tokian tokiko errealitatearen arabera jokutzen da. Zenbait lekutan, udala bera ari da auzolana berpizteko ahaleginetan, eta kasu horietan Mitxeltorenak dio garrantzitsua dela prozesuan hasieratik herritarrek aintzat hartzea. “Tradizionalki auzolana existitu izan den herrietan ikus daiteke udalak kudeatzaile rola hartu arren, herritarrek auzolana bere sentitzen dutela”. Udalaren eta herritarren interesek ez dute beti bat egiten, ordea. Zarautzen, Agirrezabalek kontatu digu udalari euren

asmoen berri eman eta hark baliabideak jartzeko prestutasuna agertu izan badu ere, euren kabuz aritu direla. “Herritik sorturiko zerbait izanik, herriak berak eraman behar du horren gidaritza, baina herritarren baliabideak udalak kudeatzen dituen aldetik, laguntzea dagokio udalari”.

Antzinako sistema, hortaz, abangoardia da egun oraindik, berritzailea baita antolatzeke eta jarduteko modua. Hala uste du Mitxeltorenak. “Gure arbasoek emandako ondare honi esker bizirik iraun dugu herri moduan XXI. mendera arte, eta hemendik aitzinera ere, herri nola pertsona gisa bizirauteen lagunduko digu”. ■








Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunaren artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

«Michelinen gorabeherak izan nituen, Tximisten ere bai, gehiegi konprometitzen nintzen»

Noizbait, emaila buzoian. “Eusebio Osaren ikasle izandakoa den Felix Razkin elkarrizketatzea gomendatu nahi dut. Erretiratu berri da, badauka zer kontatua euskalgintzaren, Euskal Herriko historiaren eta beste hainbat gairen inguruan. Gasteizen bizi da, eta bere telefono-zenbakia da...”. Abian zara bila, zer aurkituko...

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Jubilatu berri, esan didatenez.

Bai, 65 urterekin. Oparirik ez da izan batere!

Osakidetzaren bulego nagusietan, Euskara Zerbitzuan, itzultzaile.

Euskara plana ere geuk egin genuen, Euskara Zerbitzuan, Roberto Manjonek asmatu zuen, gehienbat. Dena dela, administrazioak zer du euskara plana? Itzulpenak egitea, euskara ikastaroak eskaintzea langileak euskara ikas dezan, eta hizkuntza profilen kontu hori. Ez da besterik. Euskara erabiltzea, medikuek gaixoeekin euskaraz hitz egitea... Hori ez zaie batere inporta.

Paperetan ikusten dugu euskara, gaztelaniaz mintzo den giroan. Zuek, Arbizon, alderantziz hazi zineten.

Eskolan ginen, eta ez genuen gaztelaniaz ulertzen. Arrotza zitzaigun gaztelania. Gaitz erdi, maistra bertakoa genuen, Arbizukoa. Ulertzen ez genuena, euskaraz azaltzen zigun! Buruz ikasten genuen guk. Eta 9 urterekin Oñatira joan nintzen, fraideetara, gaztelaniaz ikasi behar, eta buruz ikasten nuen dena, ezer entenditu gabe. Gogoan dut, azterketa izan zen batean, tribunala genuen aurrean, bi fraide. Ikasitakoa galdetu, eta jakin ez nola hasi! Ez dakit zenbat denbora egin nuen isilik! “Hau jakingo duzu, bada”. Ikasia nuen, baina ez nuen asmatzen. Horretan, bati bururatu zitzaion erantzunari hasiera ematea, eta lezioa ematen, erantzuten hasi nintzen, ezin geldituan. Ez genuen ezer ulertzen, buruz ikasi behar dena!

1947an Arbizon jaioa, bederatzi urtetan Oñatiko agustindar laterandarren ikastetxera joana.

Pio Mortarak sortu zuen komentua. Judua zen familia, aberatsa, baina zaintzen zuen emakumea katolikoa izan eta bataiatu egin zuen ezkutuan. Bada historia. Apaiztu zen eta, besteak beste, Oñatiko komentua sortu zuen. Hantxe izan nintzen ni. Garai hartan, eskolarik eskola ibiltzen ziren fraideak, gaiak errekrutatzen, propagandan. Nik osaba nuen Oñatin, apaiz, eta hura Arbizuko eskolara zetorrela jakin nuenean, kale, batere ez nintzen joan. Ez nuen fraidetara joateko gogorik. Azkenean, ordea, aitak eta amak osabarekin bat egin eta hamabost eguneko froga

NORTASUN AGIRIA

Felix Razkin (Arbizon, 1947) fraide bidean jarri zuten etxean, 9 urte zituela Oñatira bidalirik. Agustindar laterandarretan ikasi zuen, eta Gasteizen zen 1968an, Teologia ikasketak burura eramateko asmotan, Eusebio Osa zenaren gidaritzapean. Apaiz langileen sasoia zen, eta Teologia ikasketak egin bitartean, fabrika lanean jardun zuen. 70eko hamarkadaren hasieran utzi zuen erabat fraidetza. Tximist, Michelin eta BHN egin zuen lan. Martxoaren 3a barru-barrutik bizi izan zuen. Bizikleta fabrikaren etorkizun motzari igarri eta Euskal Filologia ikasketak burutu zituen Gasteizen (1986-1991), lanean eta ikasten. Ondotik, Osakidetzako bulego nagusietan Erakunde Zentralean jardun du lanean Gasteizen, Euskara Zerbitzuan itzultzaile. 1979an ezkondu zen, bi seme-alabaren aita da.





egitera bidali ninduten, udan, abuztuan. Eta zoragarri! Egutero futboleko, errekan jolasean, tarteren bat irakurtzen... “Alde ederra zagok hemen! Etxean behiak zaintzen, beti lan batean ez bada bestean”, esan nuen neure baitan. “Bai, bai, joango naiz Oñatira!”, esan nien gurasoei.

Etxean bazen lanik.

Bai, bazen. Karrikan ginen, baina etxea base-
rria da Arbizun, ez da Gipuzkoan bezala,
batean karrika, bestean baserria. Gure ama-
ren etxea zen Kondearena –hori izen ttikia
zela zioen gure aitak, jolasean–, aitarena
Argiñarena. Maiorazkoak agintzen zuen, eta
ez ama ez aita ziren lehenak, beraz, etxetik
irten behar izan zuten. Aita barberua genu-
nez, gure etxea Juan Barberuarena zen, eta,
are gehiago, Juanita Barberuarena.

Aita barberua.

Barberua bakarrik ez, hamaika lan egin zuen
hark: ganadua gobernatu, soroak landu,
herriko Olatzea lantegian lan egin, trenbi-
dean... Hamaika ofizio! Txerri-hiltzaile ere
bai, eta osatzaile. Arbizun, irentzaile edo ziki-
ratzaile esan nahi du osatzailek. Etxean lau
senide izan ginen, bi arreba nire aurretikoak,
hirugarrena neu, azkena anaia ttikia.

Hirugarrena zu, eta fraideetara.

Osaba han zen beti, eta bihurria ere bai ni,
bada, Oñatira! Nahiko lan izan nuen. Arbi-
zun, apeza genuen oso euskalduna, naziona-
lista puru-purua, ez zuen amore ematen.
Meza latinez esango zuen, baina sermoiak,
arrosarioak eta horiek denak euskaraz egiten
zituen hark, Juan Goikoetxeak. Kartzelan ere
egon zen, bertako idazkari eta medikuak sala-

tuta. Hala ere, bereari eutsi zion apezak. Oña-
tin berriz, gaztelaniaz ziren eskolak, errezoak
eta denak. Baziren gurekin euskaraz hitz egi-
ten zuten fraideak ere, baina gaztelaniaz bizi
ginen. Handik irten eta nahiko trauma izan
zuten batzuek, gurasoek egin zuten ahalegi-
nari erantzun ez ziotelako.

Giroa giro, euskarazko aldizkaria atera zen zuen komentuan.

Niri Oñatin piztu zitzaidan euskararen kon-
tzientzia. Han ziren Eusebio Osa, Patxi Las-
a, Pablo Anduaga eta beste. Bazen taldetxoak.
Garai hartan, komentuan zegoen kultura. Bi
aldizkari ere atera genituen: *Gure Txokoa* eta
Erein. Bietan idatzi nuen nik, Osak eta bestek
bultzatuta. Orain “eskolaz kanpoko ekin-
tzak” esaten da, bada halaxe alfabetatu ginen
gu euskaraz. Eusebio Osa zen oso jantzia,
argia, Euskaltzaindiaren Arantzazuko batza-
rrean parte hartu zuen 1968an, asko ikasi
genuen guk harekin.

Ez zen, beraz, erlijioa bakarrik.

Vatikano II.aren ondoko garaia zen, Eliza ire-
kitzen hasi zen sasoia, eta hor gertatu zen
Eusebio Osa, gizon argia, irekia, aurrerakoia
eta, garai hartarako, aurreratua. Jakina, horrek
ere kritika handiak ekarri zizkion. Oñatin, gu,
fraidegai gazteok Gasteiza bidaltzea erabaki
zutenean –guk Teologia ikasketak egitea zen
helburua, nahiz eta ordurako gure baitan
nahiko utzia genuen fraide izateko bidea–,
fraideren bat izendatu zuten arduradun, gure-
kin Gasteiza etorri, etxebizitza batean jarri,
eta gu begiratzeko. Nor izendatuko, eta Euse-
bio Osa. 1968-69 izango zen, Parisko Maiatza
hor zen nonbait. Gurekin lan izugarria egin
zuen Eusebiok. Berehala ikusi zuen ez genuen

la fraide asmorik, baina ez gintuen ezertara behartzen: “Bakoitzak bere bidea egin behar du”, eta horretan lagundu zigun.

Zein izan zenuen zuk bidea?

Langileen munduaren lilura nuen eta fabriketara joan ginen, fraidegai izanik ere, haietarik hiruzpalau. Gehienek, hala ere, irakaskuntzara jo zuten. Beste batzuk Bilbora joan ziren: Kepa Periko Mallea zena, Tasio Erkizia... Apaiz langileen garaia zen, eta Eusebio Osa bera aitzindari izan zen horretan. Bulego batean lan egin zuen [Sanchiz Bueno zen enpresa], Olabide ikastolan ere bai... Handik ere bota zuten. Esan dut, aurreratua zen garai hartarako. Oñatitik Gasteizko apartamentura etorri ginenean, bagenuen jangela handi bat, eta bertan egiten genituen mezak. Ogia eta ardoa ere, eguneroko ogia eta ardoa genituen! Hura deskubrimendua! Eusebiok hain garbi ikustea zer bide zetorren. Berak bultzatu gintuen euskarazko eskolak ematera ere.

Teologia ikasten, lantegian lanean, euskara erakusten...

Teologia ikasten genuen, apez izateko asmorik gabe, baina tituluren bat behar genuelako. Lanean, lehenengo Tximisten hasi nintzen, Oñatiko ezagunak genituelako, nonbait. Gasteizen, euskaldun mordoa zegoen ordurako. Tximist Oñatitik etorria zen, langile mordobatekin. BH, Eibartik. Esmaltaciones San Ignacio, Gabilondo... hemen ziren. Euskarazko meza behar zela esaten hasi zen Eusebio, eta leku bila abiatu ginen.

Zer zioten Oñatin, komentuan?

Baztertu egin gintuzten, erabat. Eta sekulakotak esan gure kontra. Eusebio traidoretzat hartu zuten, menperatu genuela zioten. Baina, benetan, berak ikusten zuen bidea, ez guk. Ikasten eta lanean ari ginen, eta euskarazko eskolak ematen. Nik, esaterako, Bar Paco izeneko batean eman nituen, Becerro

“Euskaraz badaki?”

“Osakidetzan ari nintzela, era askotako itzulpenak egiten, Roberto Manjon Euskara

Zerbitzuko burua azaldu zen gurera, konturatuta lehen haren zerbitzuan egiten ziren zenbait itzulpen-lan ez zirela haiengana heltzen. ‘Nork egiten ditu orain itzulpenak? Kanpora bidaltzen dituzue? Dirua alferrik gastatzen ari ote zarete, bada?’. Eta esan zioten: ‘Honako gizon honek egiten ditu’, ‘euskaraz badaki, ala?’, eta ‘bai, Euskal Filologia egina da, eta laugarren perfila ere badu’. Eta hartu eta beraren zerbitzura eraman ninduen”.

Bengoa kalean. Bertako semearen bidez. Tito zen hura, ETAKoa, Basauriko espetxetik ihes egin zuena. Hark utzi zigun lekua. Taberna ondotsuan zegoen komisaria. Poliziak ondo asko zekien zertan ginen gu. Afaltzera omen gindoazen! Txikitorik ordaintzeko dirurik ez, eta egunero tabernan, afaltzeko aitzakian. Jende askorekin izan genituen harremanak. Mario Onandia ere hurreratu zitzaigun...

Mario Onandia?

Bai, zer lan egiten ari ginen ikusita, jendea haietara eramatea nahi zuten.

Ez zineten ETAKoak, hala ere.

Ez. Gerora, baten bat inplikatu zen horretan ere, baina garai hartan gure artean ez zen ETAKorik. Guk geure lana egiten genuen. Nik, Bar Paco eman nituen eskolak, eta Dato karrikan bertan ere bai, Manuel Iradier mendi-elkartean. Beste leku bat, Club Jabatos, Nieves Cano karrikan. Hara eta hona mugitzen ginen, lanean. Pako Eizagirre, Rafa Etxegarai, ni neu... Bost-sei lagun ginen horretan, euskara erakusten: “Hi, eta zer erakutsi behar diagu?”, batek, eta besteak: “Agurrak nola egin, adibidez”. Komunikazioa, alegia. Esaldiak egiten erakutsi jendeari, eta hau eta hura. Geroztik makina bat saio egin da bide horretan.

Disgusturik izan zenuten...

Bai, Araozko segadaren ondoren batez ere. 1969an izan zela uste dut, Legution, bonba jarri zioten gerran hildakoen monumentuari. Jon Oñatibiaren arreba ere atxilotu zuten, moja zena. Gu barnetegian ginen Araotzen, bertako parroko Ander Iriondok utzitako etxean, neska eta mutil. Bigarren uda ikastaroa genuen. Ikasleen artean bazen ETAKorik, jantokian beti agertzen zen panfletoren bat. Legutiokoa gertatu eta guardia zibila etorri zen. Baliteke auzoan bertakoren batek salatzega gu, baina ez ETAKoak ginelako, edo izan

Elatzeta Ikastetxea



**Guztion eskola publikoa · Gaurko eta biharkoari erantzuteko
Harremanak elikatuz · Euskaraz bizitzen**

Araba 44, Landetxa Auzoa 20.305 IRUN · ☎ 943 62 80 10 · elatzeta@euskalnet.net · www.elatzeta.com

Ez dok hamahiru

Arbizu: Umeak ginela, gaur UPNkoa izan zitekeen jendea bazen, baina haien maxima zen, “euskaraz, e!”
Garai hartan!

Principe de Viana: Erakundeak saria ematen zien euskaraz egiten zuten herriei. Euskaraz esanarazi ziguten dotrina. 7 urte nituen. Saria jaso genuen. Aurrezki libreta zabaldu ziguten, 150na pezetarekin, eta diploma eman ziguten. Gordeta daukat oraindik.

Oñati: Bizipen gazi-gozoa. Lanerako diziplina, batetik; zigorrak, bestetik. Libertaterik ez.

Gasteiz: Ilusio handiz etorri nintzen, Oñatiko giro itxitik irtenda. Hemen ezagutu nuen langile giroa.

Gasteizko fraidegaien komunitatea: Horixe, komunitatea. Gauak luze ziren, kontu kontari.

Fraidetza uztea: Gurasoei nola esan, horixe kezka. Esan, eta haien disgustua!

Lehen lana: Garoña inguruko urtegiak jardun nuen, gauez. Zer zen hura! Erdi lotan! Hantxe ezagutu nuen errealitatea, baina egun gutxi egin nuen han.

Tximist: Burgosko prozesu garaian, Juanito Zelaia berak –edo lantegiko arduradunak– agindu zigun lanari utzi eta kalera irteteko, protestan. Lan-hitzarmena sinatu behar zenean, berriz, eskuzabaltasunik ez zen.

BH: Michelinetik bota ninduten eta aste bat garreneko lana nuen BHn.

Martxoak 3: Sekulako borroka eta mugimendua. Baina laster ziren sindikatuak protagonismoa bereganatu nahian, eta desengainatu nintzen.

Euskal Filologia: Langile munduan ez nuen etorkizunik ikusten.

Osakidetza: Oso jende ona. Jubilatutako aurreko despedidan zerbitzu zentralerako 200 lagun bildu ginen.

gintezkeelako, han neska eta mutil genbiltzalako baizik, batera bizitzen. Hamabost eguneko ikastaroa amaitu bezperan-edo, polizia. Atxiloketak. Batzuk Donostiara eraman zituzten (Eusebio, Pako Eizagirre...), beste batzuk (ni, tartean) Gasteizen eduki ninduten Bakea kaleko polizi etxean.

Donostiara batzuk, Gasteiza beste batzuk?

Araotzen harrapatu zituztenak, Donostiara. Han ez ginenok, Gasteiza. Ni, esaterako, etxera joana nintzen, laneko arropak hartzera. Haiek hartu, Gasteizko etxera sartzera egin, eta barrutik ireki zidaten guardia zibilek. Araozkoa makurragoa izan zen, metrailetak buruan zituztela esnatu zituzten gure lagunak.

Araotzek zuen azkena ekarri zuen.

Gu sakabanatzea ekarri zuen, bai. Nork bere bidea egin zuen harrezkero. Eusebio ere sekularizatu zen. Nik Teologia bukatu nuen, soldadutza egin nuen ondoren, eta handik itzuli nintzenean beste bat zen egoera Gasteizen. Harremanetan segitzen genuen, baina nork bere bizia zeraman, neskalagunarekin askotan.

Lanari lotu zintzaizkion berriz, fabrikan.

Michelinen, orduan. Han ere izan nituen gorabeherak, eta alde egin behar izan nuen. Gehiegi konprometitzen nintzen. Tximisten ere berdin. Langileen alde beti, asanbladetan asko parte hartzen... Joateko esan zidaten, eta joan egin nintzen. Botata. Michelinen, berdin, 1972an. BHn hasi nintzen gero, Euskal Filologia ikasketak egiten hasi ere bai 38 urte nituela... Zortzi orduko lana egiten nuen, eta estudiatu.

Aittuna, ipuina!

“Ez dut etxean geratzeko asmorik, baditut proiektuak. Daukanak eman egin behar du. Euskarazko eskolak ematekoa naiz jubilatuei, Mintzalagun egitasmoan ere parte hartzen dut, ilobak zaintzea ere badagokit, haurrei ipuinak kontatzea asko gustatzen zait, eta haiek idazteko esaten didate... Idatziko ditut, baina niri, batez ere, ipuinak eszenifikatzea gustatzen zait, aitarengandik ikasi nuen, eta ilobek ere halaxe eskatzen didate: ‘Aittuna, ipuina!’”.

Zergatik ikasi, Teologia tituluaren jabe zinena?

BHn etorkizunik ez zela ikusi nuen. 500 langile ginen garaian bertan, produktu asko Txinatik ekartzen zutela ikusten nuen. “Hemen jendea sobran zagok!”, hasi nintzen neure buruari esaten. Orduantxe erabaki nuen Filologia ikasketak egitea... Orduan ere arazoak izan nituen fabrikan: goizeko txanda eskatu nuen –txanda aldatzen ibili gabe–, arratsaldean unibertsitatera joan ahal izateko. BHko langileri-buruak ezetz, goizez eta arratsaldean egin behar nuela lan, txandaren arabera. Salaketa jarri nuen epaitegian, eta epaiketa aurreko kontziliazio ekitaldian, eskubidea onartu zidaten. Horrelaxe ikasi ahal izan nuen Euskal Filologia. Lepo-lepotik asmatu nuen, ikasketak amaitu eta jendea kaleratzen hasi baitziren lantegian, BHn, eta, besteak beste, ni. Ordurako irakasle jarduteko oposizioak egiteko izena emanda nongoen, Osakidetza zerrendetan ere bai... Urte erdia egin nuen langabezian –informatika ikastaroak egiteko baliatu nuena–, itzultzaileentzako deialdia ere egin zuen IVA Pek eta han hartu ninduten urtebetez, enpresa pribatuan ere egin nuen lan –artean, itzultzaile–, beste lagun batekin ere aritu nintzen, Xabier Armendarizekin, itzulpengintzan langile, halako batean Osakidetza deitu nindutenean, ordezkapenen bat egiteko. Esana nien: “Sei hilabete baino gutxiago egiteko bada, ez ibili deitzen, lana badut eta”. Urte erdirako zen. Xabierri esan nion: “Utziko al didak esperientzia egiten?”, “baina bueltatu hadi, e!”. Ez nintzen itzuli, Osakidetza hartu dut erretiroa joan den azaroan. Horrela. ■



Eredu finlandiarraren gakoak

Irakaskuntzan eredu dira finlandiarrak eta munduko emaitzarik onenak lortu ohi dituzte neurgailuetan. Hona Finlandiako hezkuntza sistema arrakastatsuen gakoak, gaian aditu den Xavier Melgarejori Eldiario.es egunkarian egin dioten elkarrizketa batetik aterata.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Argazkia: unmundoperfecto.blogspot.com.es

Irakasleen hautaketa. “Batxilerrean eta errebalidan 10etik 9 baino nota altuagoa eskatzen zaie irakasle izan nahi duteneri”, argitzen du Melgarejok, eta garrantzitsuena: “Fakultate bakoitzak test eta elkarrizketa pertsonalak egiten dizkie, eta errendimendua neurtzeaz gain sentsibiltate maila ere neurtzen dute. Ikaslea oso azkarra izanagatik, aisialdi talderen batean ez bada inoiz aritu, ziurrenik ez dute hartuko”. Gurean, selektibitatea eta baxoa dira karrerarako sarbidea, edukiak neurtzen dituzten azterketa teorikoak, kontuan hartu gabe irakasle izateko beharrezkoak diren beste hainbat balore eta ezaugarri.

Irakasleen prestakuntza. Finlandiako Magisteritza karreraren “askoz ere kreditu gehiago dituzte. Gainera, tesina bat eta praktikak egin behar dituzte, irakasle onenak dituzten kalitate goreneko ikastetxeetan”, dio adi-tuak. Praktikak, horra giltzetako bat, gurean irakasle ikasketak oro har oso teorikoak baitira. Edukietatik harago, bere lanaz gogoetatzeko, gaitasunak lantzeko eta alternatibak bilatzeko gai den irakaslea prestatzea ezinbestekoa da.

Prestigio soziala. “Irakasle lanbidea oso ondo baloratua dago. Finlandian, ohorea da irakasle izatea”. Hemen aldiz, desprestigio soziala jasaten dute maiz, batik bat azkenaldian, eta batik bat politikarien ahotik.

Adostasun politikoa. “Legeek askoz gehiago irauten dute, parlamentuaren bi herenek onartu behar dituztelako. Gutxi gorabehera 30 urtean behin ukitzen dituzte”. Gurean, ez dago alderdien arteko gutxieneko akordioarik eta horren emaitza behin eta berriz sufritzen dugu: gobernura iristen den alderdiak nahieran moldatzen du hezkuntza eredua aldiro.

Pertsonalizatua. “Ikasgela bakoitzeko 15 edo 16 haur daude. Eta ikasleren batek arazo larriak dituenean, autismoa adibidez, 10 baino ez daude gelan, eta ikasle horrek gainera laguntza berezia dauka. Haur batek zailtasunak dituela ikusten badute, baliabide guztiak bide-



ratzen dizkiote: logopedak, psikologo espezializatuak...”. 30 ikasle inguru dira EAEko ikasgeletako ratioak, eta José Ignacio Wert Espainiako Hezkuntza ministroak Estatuko ikasgeletako haur kopurua %20 igotzeko neurria aurkeztu zuen iaz.

Deszentralizatua. “Finlandian oso handia da deszentralizazioa: curriculumaren %90 udal mailan antolatzen da. Edukiak egokitu behar dituen komunitatetik gertuen dagoen jendea izan behar dela uste dute. Baina horretarako irakasleak prestatu behar dituzu, eta konfiantza izan behar duzu haiengan. Finlandian ez dago ikuskaririk”. Bestelakoa da Espainiako nahiz Frantziako estatuek hezkuntzan duten ikuspuntu zentralizatzailea. Euskal Herri mailan ere, ikastetxeek autonomia handiagoa eskatzen dute edukiak antolatzeko.

Irakurketa ulerkorra. “Finlandiarrentzat zutabe funtsezkoa da, eta horretan familiak asko laguntzen du. Denek irakurtzen dute etxean. Biztanle bakoitzeko liburu eta liburutegi gehien dituen herrialdea da munduan, eta familien %80 astean behin liburutegira doa irakurtzera. Komunitate guztiak bultzatzen ditu haurrak irakurketara, marrazki bizidunek ere azpigituluak dituzte telebistan”.

Komunitate irekia eta inplikaturia. “Ikaskuntza komunitatea da Finlandiako: ikastetxe guztiak publikoak dira eta komunitateari zabal-tzen zaizkie, haren zerbitzura daude. Gurasoek parte har dezakete, prestakuntza jaso dezakete laguntzeko, eskolaz kanpoko ekintzak antola-tzen dira... Ikastetxeko ateak irekita daude”.

Laguntza publikoak. “Konparaezinak dira laguntzak. Finlandian ez daude jangela-bekak, mundu guztiak jan dezakeelako eskolan eta Gizarte Ongizate Sailak ordaintzen du. Eskolako materiala eta liburuak ere doakoak dira”. Irakaskuntza per-tsonalizatuaren atalean aipaturiko baliabideak lortzeko ere, ezinbeste-koak dira diru-laguntzak. ■



SIRIAKO GATAZKA

Frankotiratzaile baten begietatik

Aleppo hirian, Al-Assaden tropen aurka borrokan ari den frankotiratzailea ezagutu du Andoni Lubaki kazetariak. Eremua zaintzea eta aurkariak zelatatzea da frankotiratzailearen egunerokoa. Eta tiro egitea.

Testua eta argazkiak:

| ANDONI LUBAKI |



ALI KASSMOU eserita dago, arnasa hartu nahian gorantz begiak itxita. Izerdi tanta bat erori zaio kopetatik behera. “Oraingo honetan gertu egon da” esan, begiak ireki eta lurrean etzan da. Ondoan du, oraindik bero, belgikar jatorriko fusil zaharra, Aleppoko kaleetan ibiltzeko lagunik onena, bere hitzetan. Segituan jaiki da, ordea: “Oraindik beste kale bat geratzen da”. Makurtuta abiatu da kale estutako bidegurutzerara. Sakelatik ispilua atera eta isla baliatuz kalearen beste aldean ikusten saiatu da. Ondo arakatu du ingurua, ispilua alde batetik bestera mugituz, kale izkina guztiak miatuz, zirrikiturik ere utzi gabe. Fusila bizkarrean zintzilikatu eta bizkarralde-tik 9 mm-ko Magnum pistola atera du. “Etxe barruan borrokatzeko erabilerrazagoa da”, dio. Bat, bi, hiru kontatu eta korrika batean gurutzatu du kalea, parean dagoen ate ilunetik sartu eta desagertu egin da haren irudia. Aleppoarra da Ali Kassmou, 20 urte ditu eta Abu Ahmed ezizenez ezagutzen dute gerlako frontean, nahiago du hala deitzea. Sniperra da bera, frankotiratzailea alegia.

Mila leihoko etxean

Abu Ahmedek zinema oso du gustuko, txikitatik, gerra eta umorezko filmak gehienbat. “Siriara iristen ziren pelikula guztiak ikusten nituen. Ondoren nire lagun batek ziber-kafe bat ireki zuen eta handik pelikula mordoa jaitzitakoa naiz”. Bere gogokoenak *Saving Private Ryan*, *The thin red line* eta Bigarren Mundu Gerrari buruzkoak dira. Badu kuttun bat ere: *Enemy at the gates*. “Film hori ikusi eta erabaki nuen gerla hasi zenean nik ere Vassily Sheich-pelikulako protagonistaren gisan frankotiratzailea izan nahi nuela”. Siriako Armada Askeko boluntarioa da eta Assad-en tropek kontrolatzen duten eraikin bi eta sei kale zaintzea du zeregin. Norbaitek alde batetik bestera pasa nahiko balu, bi bandoetako frankotiratzaileek ikusiko lukete. Gurutzatzen duenak, beste aldera iristea lortzen badu, ezin du jakin nondik datozkion tiroak.

“Nik etxe hau dut lantoki eta hemen barrutik sei kale kontrolatu behar ditut. Ezin naiteke leihotara gehiegi hurreratu, beste aldean beste frankotiratzaile bat dagoelako eta tiro egingo lidakeelako, zalantzarik egin gabe. Sagu eta katuen pare. Badakit hor daudela, badakite hemen nagoela, sentitzen ditut eta sentituko naute. Baina ezin elkar ikusi!”.

Abu Ahmedek “lantokia” erakutsi digu. “Hemengo zulotik kale hau ikusten dut eta egongelaren beste aldean dagoen beste hartatik kale luzeena. Hildakoen kalea ere deitzen diogu, usteltzen ari diren bost gorpua baitaude. Inork ez ditu jaso, muturra hurbil-

“Etxe honetatik sei kale kontrolatu behar ditut. Ezin naiteke leihotara gehiegi hurreratu, beste aldean beste frankotiratzaile bat dagoelako eta tiro egingo lidakeelako. Badakit hor daudela, badakite hemen nagoela, sentitzen ditut eta sentituko naute”

**Abu Ahmed,
Siriako Armada Askea**

tzen duen edozeini tiro egiten diolako Al-Assaden soldaduek. Nik aldiz ez diet zibilei tiro egiten. Auzokideak ditut, hemen jaiotakoa eta hezitakoa naiz ni, horko etxe birrinduan”, azaldu digu tiratzaileak, kale izkinetako bat seinalatuz.

Erabat txikitutako gela batetik bestera mugitzen da, isil-isilik. “Gehienetan bakarrik egon ohi naiz, hobe horrela”, diosku. Lehen etxebizitza honetan bertan familiak banantzen zituzten paretak zuloz josita daude gaur egun eta pasilloak eta leiho asko itxita. Labirintoa dirudi Saif Al-Dawla auzoko fronte honek, eta ingurua ondo ezagutzen duen batekin gerturatzea komeni da, baita inguruko kaleetan borrokatzen duten gudariak eurak ere. “Galtzeko arriskua dago bestela, eta agertu behar ez zaren tokian agertzen bazara... kito”, argitu du Abu Ahmedek, hatzarekin lepoa mozteko keinua eginez, labana bailitzan.

“Orain gauden etxebizitza hau —gaineratu du— nirekin eskolan ibilitako lagun batena da. Txikitatik ezagutzen dugu elkar eta lehengoan Interneterako konexioa lortu nuenean bere email bat jaso nuen, gurasoen etxebizitza nola zegoen jakin nahi zuen. Assaden aldeko familia batekoa zen, ez nion esan nik bertan lan egiten nuenik, baina ondo zegoela uste nuela erantzun nion”.



ellaury
HOTELA

KILO TERDI TXOKOA
Kilo t'erdiko txuleta
Legatz-solomoa plantxan
(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellaury.com

Natura sentitu

SIRIAKO GATAZKA



Abu Ahmed Siriako Armada Askeko sniperra, Saif Al-Dawla auzuneko teilatu batean, esku bakoitzean arma banarekin. Eskuinean, auzunean birrindutako etxeetako bat.

Gelatik gelara mugitzen da Abu Ahmed, isilik beti ere. Eraikineko egongela kiskali eta sukalde kirasdun guztiak ezagutzen ditu, horretako zulo txiki guztiak. Mila leiho txiki dituen etxeke erregea da Ahmed, sei kaletako zaindari eta amets bakarraren jabe: “Gerla irabazi eta ikasketak bukatzea”.

Mendekuaren bidea

1980ko hamarkadan Latakia-tik (Siriako kostaldean) iritsitako musulman sunita da Ahmeden familia, siriarren gehiengoa bezala. Familia osoa aldatu zen Aleppora, mehatxuak zirela medio. “Osaba Hafez Al-Assad-en poliziak hil zuen, aurka egiteagatik. Etxea erre ziguten orduan eta aitak erabaki zuen hobe genuela leku seguruagora etorri. Horregatik diot beti latakiaarra naizela, ez

“Mendekuagatik hasi nintzen borrokan, osaba, anaia, aita eta lehengusuak bezala. Nire familiari egindakoa ez diot inoiz barkatuko Al-Assad familiari. Bere inguruan egon diren militar, politikari eta gaizkile guztiak ere errudunak dira”

Abu Ahmed,
Siriako Armada Askea

alepoarra, Aleppon jaio eta bizi izan naizen arren”, azaldu du gudari gazteak.

Assaden aurkako protestetan ibiltzeagatik, familia ezaguna da berea eta senide ia guztiak espexetik pasatutakoak dira: “Aitona, osaba, aita, anaiak... Ia denak pasatu dira Al-Assaden atzaparretatik”. Saif Al-Dawlako komandantea da osaba, Abu Ali gerra ezizenez ezaguna. “Berak irakatsi zidan nik orain dakidan guztia. Bi orduko ikastaroa jaso eta frontearako prest nengoela esan zidan”.

Dagoeneko, urtebete darama Ahmedek borrokan. Argi du zergatik: “Mendekuagatik hasi nintzen borrokan, osaba, anaia, aita eta lehengusuak bezala. Nire familiari egindakoa ez diot inoiz barkatuko Al-Assad familiari. Baina ez dut bera bakarrik errudun jotzen, bere inguruan egon diren militar, politikari eta gaizkile guztiak ere errudu-





Siriako Armada Askeko gudariak, bonba batekin (ezkerrean) eta posizioak zelatzen.

nak dira. Ez naiz oso islam-zalea, baina jende horrek guztiak zigorra merezi du”.

Allahu Akhbar!

Ostiraletan, Assaden aurkako manifestaldietara joatea gustatzen zaio Ahmed. Lagunekin elkartu eta indarrak berritzeko balio dio. “Bustan Al-Qasr-eko protestak gustatzen zaizkit. Hor ikusten duzu zergatik eta zeinengatik ari garen borrokan”, dio gazteak. Hantxe elkartzen dira batailoiko gazte gehienak: Abdelazziz, Ahmed, Mohammed, Yassar, Jamil... “Denak egon ohi dira, baina batzuetan ezin izaten dugu etorri, frontea zaindu behar dugu”, dio. “Hau Jamil da, nire laguna —aurkeztu digu—. Idlib-ekoa da, baina Aleppora etorri zen boluntario, borroka egitera. Ordutik lagunak gara”.

Eskua luzatu digu Jamilek. Bere esanetan, “borroka irabaziko dugu eta Siria berri bat jaioko da Ala-ren laguntzaz. Korana da gure arma indartsuena, Jainkoak eman digun armarik onena!”. Koraneko sura batzuk errezitatuz hasi da manifestaldia, meskitako erre-

zoak bukatu ostean. Kantu eta oihu artean, sorbaldatik helduta aurrerantz doaz gazte borrokalariak, umeak lepoan dituztela. Siriako bandera “errebeldea” gogoz astintzen dute esku batean, bandera islamista beltza bestean. “Allahu Akhbar, Allahu Akhbar, Allahu Akhbar!” (jainkoa handiena da) errepikatzen dute, fededun.

Segituan amaitu da manifestaldia, Assaden helikoptero bat entzun bezain pronto. Jendea beldur dela sumatzen da eta etxeetako portaletan gorde dira azkar batean, badaezpada zerura begira. Zerutik datozen misilen izuak, fedeak baino azkarrago mugiarazten ditu protestan doazenak.

Ondoren, frontera bueltatu da Abu Ahmed. Te gorri bero bat hartu du eta lantokira sartu da, ate ilunetik barrena. Korrika egin du berriro suntsitutako kaleetatik, pistola eskuan duela gela guztiak miazteari ekin dio atzera, zelatan, inor baimenik gabe sartu ote den. Gaur ere, mila leiho dituen etxeko erregea da Abu Ahmed aleppoarra, sniperra. ■







San Nikolas IKASTOLA

IKASMAILAK (1-16 urte)

- Haurtzaindegia
- HH, LH eta DBH
- Gela Berezia: txikientzako logelak, psikomotrizitatea, liburutegia, Mundi Lab, laborategia, teknologia, musika, informatika (ekipo guztiak internetara konektatuta)

ZERBITZUAK

- Haurtzaindegia laborala (2-5urte): 07:30-18:00
- Jantokia
- Autobusa (Getxo, Berango, Urduliz, Leioa, Areeta...)
- Aniztasunari arreta berezia: psikologia, auxiliarrak, terapeutika irakasleak, orientatzaileak...
- Liburutegi gidatua
- Eskolazkanpokoak: ingelesa, frantsesa, pianoa, solfeoa, baleta, trikitixa, korala, kirolak...
- Udako eskaintzak: haurtzaindegia, egonaldiak, ingelesa ikastaroak...

Arene Azpi 15 · GETXO (Bizkaia) · T 944 305 478 · F 944 305 477 · ikastola@sanikolas.net



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



EHUKO
IRAKASLEA,
EPAILEA

Ustelkeria eta erakundeen utzikeria

TARTEKA iristen zaizkigu ustelkeria politikoari buruzko albisteak. Tarteka, ustelkeriaren eta iruzurraren aztarnak eta susmoak zabaltzen dira, normalean jarduera politikoari lotuta. Une horietan herritarrok biziki haserretzen gara eta inguru politiko guztia zalantzan jartzen dugu.

Ondo dago dena eztabaidatzea eta arazo honen jatorrira joan nahi izatea. Ariketa honek, interesgarria izateaz gain, konponbide demokratikoak ekarri ditzake. Ustelkeria politikoaren ildotik eztabaidatzen ari garena demokrazia bera da. Edo demokraziarik eza, hobeto esanda. Edota erakunde demokratikoen kontrolaren porrota. Beharbada, hau guztia dago zalantzan: nola egituratu gizarte demokratiko bat, nola bideratu herritargoaren partaidetza eta, azkenik, nola kontrolatu jartzen diren bitarteko horiek.

Herritarrok gai publikoetan parte hartzeko eskubidea dugu, zuzenean nahiz ordezkarien bitartez. Argi dago gure sistemak ordezkaritza politikoa aukeratu duela eta inolaz ere partaidetza zuzena. Halaber, ordezkaritza hori alderdi politikoengan utzi da sistema itxi baten bitartez.

Ustelkeria politikoaren ildotik eztabaidatzen ari garena demokrazia bera da. Edo demokraziarik eza, hobeto esanda. Edota erakunde demokratikoen kontrolaren porrota. Beharbada, hau guztia dago zalantzan: nola egituratu gizarte demokratiko bat

Espainiako Estatuan sistema demokratikoa alderdien sistema da. Sistema zorrotza eta itxia, non herritarren parte-hartzea eskasa den, bizitza politikoa burokratizaturik dagoen eta jarduera politikoa profesionalizatzen ari den. Egia da diktatura batetik ateratakoan garrantzitsua zela egitura politikoak indartzea, baina egia da, baita ere, edozein egitura kontrol demokratikoaren pean mantendu behar dela. Espainiak alderdi politikoak behar zituen

gutxieneko demokrazia sendotzeko eta Estatua homologatzeko. Baina, gaur, irtenbide hori zama handia bihurtu da: alderdi politikoen sistema, egituratuta dagoen bezala, konponbide izatetik arazo izatera pasa da.

Hori da antolatu den sistema. Eta horri gehitu behar zaizkio alderdien eguneroko “praktika” eta erakundearen kontrolak eza. Alderdiak, orokorrean, burokratizatu egin dira, ez dira jadanik bitartekoak, helburuak baizik. Alderdiek berezko bizitza dute, interes asko eta handiak biltzen dituzte eta, azkenean, herritargoarengandik subjektu independenteak dira.

Alderdien makinaria hori asetzea ez da erraza. Alderdiek kanpainak behar dituzte hauteskundeak irabazteko eta kanpaina horiek sostengu ekonomiko handia behar dute. Larriena da alderdien diru-sarrerek eta gastuek kontrol eraginkorrik ez daukatela, zeren eta, nahiz eta sistemak aurreikusita dituen erakunde batzuk – kontu auzitegiak eta hauteskunde batzordeak, batez ere –, argi dago erakunde horiek ez daukatela horretarako gaitasun nahikorik. Eta zer esan auzitegi arrunten kontrolari buruz? Bada, ustelkeria delitua denean bakarrik hartzen dutela parte eta hau ere oso era mugatuan eta bitarteko berezirik gabe.

Arretaz aztertzen badugu ustelkeria politikoaren arazoa ondorio batzuk atera ditzakegu: gehienetan, alderdien gastuei lotuta dagoela; askotan, hainbat erakundetan hirigintza arloan hartzen diren erabakiekin zerikusi zuzena daukala eta, azkenik, arazo hau argitara azaltzen da normalean alderdikideren batek bere onura pertsonala bilatu nahi izan duelako. Hau da, alderdi barruan horrelako jokabideak onartzen dira baldin eta alderdia bada onuraduna, nahiz eta hau ere guztiz onartezina den, alderdia eta gizartea ez direlako gauza bera eta mesede horiek ez direlako inolaz ere herritarrontzat.

Benetan, ustelkeriarekin amaitzeko gai publikoetan parte hartzeko eskubidea beste era batera gauzatu behar da. Ezinbestekoa eta posible da. ■





URTARRILEAN TAOL KURUN

45 IKUSKIZUN 15 EGUNEAN 14 HERRITAN



DIZALC'H HAG EMREN
BREIZH BEREIZ

Jon Alonso

ITZULTZAILEA ♦



JOSU SANTESTEBAN

Literatura askatzailea

JOXE AZURMENDIREN liburu bakoitza opari bat da, eta azkena, *Barkamena, kondena, tortura* harribitxia. Joxek hitzak, argudioak, testuinguru historiko, filosofiko eta ideologikoa ipini dizkie guk orain arte hitz eta argudio bihurtu ezin izan ditugun –edo beldurrez, beldur justifikatuaz, bihurtu nahi izan ez ditugun– amorruari eta ezinari. Azurmendik alemanez daki, eta ez da lehenengo aldia alemanez zipitzik ere ez dakiten erregimeneko filosofoen eta intelektuaren ezjakintasuna eta manipulaziorako joera agerian uzten dituen; oraingo honetan Jaspers manipulatu bati buruz dihardu, betiere gure artean erruduntasunaren susmoa eta sentimendua zabaltzeko manipulaturakoa. Liburuaren hiru zatiak dira antologikoak, baina *kondenamaniari* eskainia derrigorrez irakurri beharrekoa izan beharko litzateke urteotan *xibboletetik xibboletera*

Liburuaren hiru zatiak dira antologikoak, baina “kondenamaniari” eskainia derrigorrez irakurri beharrekoa izan beharko litzateke urteotan “xibboletetik xibboletera” ibiltzera behartutakoontzat

ibiltzera behartutakoontzat. Estatuak kontzientziak eta pentsamendua bortxaz inbaditzeko eduki duten ohitura historikoa da, eta espainarrien kasuan erakunde paradigmatico bezain *castizo* baten bidez gauzatu da: Inkisizioa. Azurmendiren beraren hitzetan esateko, kontzientzien kontrolaren ildo historiko honetan dator eta ikusi behar da egungo fanatismo kondemaniakoa. Diskurtso ofizial tranpati baten hondoa San Agustinen ideologia baino ez dago (“San Agusti-

nen heresiarako eskubidearen uko teologiko zaharren aldaki politiko moderno “demokratikoa”, Inkisizioari atea zabaltu ziona”), eta paradoxikoa bada ere ustez progre eta ustez laiko diren espainiar asko dira diskurtso horren defendatzaileak, Euskal Herriko arazoaz ari direnean (bestelako gaiez ari direnean besterik da). Joxe Azurmendik dioenez, “Eliza usain txar bat dario inkisizio kondenamaniako guztiari”; izan

ere, “bortxarekin Estatuak daukan arazoa ez da morala, politikoa da. Baina askaera beraiek eman beharretik desertatzeko ihesbide arinena politikoentzat, arazoa politikotik moralera trukatzeko da, orduan soluzioa gu hiritar guztion kontzientzien zeregina bihurtzen baita, ez Estatuaren eginbeharra”.

Hitz horien oihartzuna oraindik ezabatu gabe neukala, izan zen presoan aldeko Bilboko manifestazio erraldoia eta arra-

kastatsua, eta geroako erreakzioak. Hona hemen Jose Antonio Ardanazarena (alegia, estatu laiko baten goi mailako ordezkari politiko izandako batena): “Presoek damu-aitorra egin beharko lukete”; (“kontrizio-ekintza” edo).

Hara! Zer izango da hurrena, bataiatu gabeko presoek konberti daitezela eskatzea? Batzuetan, liburu bat irakurtzea askatzailea eta argigarria da. ■



Amets
Arzallus



BERTSOLARIA

Lance

LOKATZETAN habil berriz ere, Beloki erori zeneko hartan bezala, La Rochetten behera, Gaperako bidean. Baina oraingo honetan satorren batek bota hau, erori egin haiz, aurpegia lohiturik dakark kameran aurrera, eta aitortu duk, beherakoan bakarrik ez gora ere bide zidorretatik joaten hintzela.

Lokaztuta datoz txirrindulariak, gizarteak Zolderreko zirkuitu bat prestatu die, eta ziklokrosekoak bezala buztindurik datoz, gorputz osoa ziprztinduriko lur bat, ez zaie aurpegirik ere bereizten, eta jendeak txistua botatzen die muturrera, edo lokatza.

Ez dut esaten irteeran perfume usaina zerienik, beren errua ere ez denik fabrika

hola usteldu izana, baina helmugaren eta harako bidearen arteko debatea zaharra da. Makiabelo ez zen ziklista italiar bat, politikaria zen, izan zitekeen bankari.

Denek izaten dugu lokatz pixka bat esku artean eta norbaitek pentsatu du ziklistek dutela sudurrik luzeena, han itsatsiko dela ongi. Ibiliko da Frantzia Malin gas bila, eta Bartzelona Qatarreko putzu beltzetan igeri, Armstrong pasako da gure aurretik, eta lokatz pixka hori harturik atzamar puntetan, oihu egingo diogu garai batean bezala elkarri, “allez, lance!”. ■





Kike Amonarritz

♦ UMOREGILEA ETA SOZIOLOGIA

Calvet Barometroa: euskara da munduko 51. hizkuntza

KALERATU berri dira Calvet Barometroaren 2012ko datuak. Munduko hizkuntzen bizi-indarra edo “pisua” neurtzen dituen barometro honetan, inoiz baino hizkuntza gehiago sailkatu ziren iaz.

Azken neurketa honetan, Alain Calvet eta Louis-Jean Calvet soziolinguistek *Ethnologue*ren arabera 500.000 hiztun baino gehiago dituzten munduko 563 hizkuntzak neurtu eta sailkatu dituzt. 2010ean 137 neurtu zituzten. Hiztun kopuruz gain, hizkuntza baten bizi-indarra edo “pisua” neurtzeko garrantzitsuak diren beste hamar faktore aintzat harturik, munduan “pisu” gehien duen hizkuntza ingelesa da, bigarrenaz gaztelania eta hirugarrena frantsesa. Sailkapen honetan mandarinerak 10. lekuan geratu da. Euskara, berriz, munduko 51. hizkuntza da.

Emaizta honetara iristeko aintzat hartu diren faktoreak honako hauek izan dira: hiztun kopurua, entropia (hiztunen proportzioa, bizi diren herrialdeetan), zenbaten lehen hizkuntza den, ofizialtasuna, hizkuntza horretatik itzulitako liburuak, hizkuntza horretara itzulitako liburuak, Literatura Nobel sariak, Wikipediako artikulak, Giza-garapeneren indizea (hizkuntza hitz egiten den herrialdeetako batezbestekoa, NBERen datuen arabera), ugalkortasun-tasa eta Interneteko barneratze-tasa.

Egileek diotenez, bestelako faktore batzuk ere aukera zitezkeen baina hizkuntza guz-

tiei edo gehienei buruzko datuak lor zitezkeen faktoreak lehenetsi dituzte. Bestalde, indize horiei guztiei 1eko balioa eman zaie, baina erabil-tzaileak indizeen garrantzia barematu dezake, batzuen handituz eta besteena murriz-tuz eta ponderazio berriak egin. Esate baterako, beste faktore guztiak 1eko balioarekin utzi baina hiztun kopuruari 2ko balioa ematen badiogu, euskara 71. lekura jaisten da. Edozein kasutan, bizi-indar handieneko 100 hizkuntzen artean kokatzen da sailkapen honen arabera.

Duela gutxi, ARGIAko blogean argitaratutako *Euskararen tamaina munduko hizkuntzen artean* artikulua sortu zuen jakin-mina eta izan zituen erreakzioak ikusita, pentsatzen dut, datu berri hauek ere baten baino gehiagoren harridura eta jakin-mina sortuko dutela.

Esan dezagun, bide batez Louis-Jean Calvet oso soziolinguista ezaguna dela. Bere lehen liburuetako bat *Linguistique et colonialisme. Petit traité de glottologie* (1974) izan zen. Liburu hau erreferentzia ezinbestekoa izan zen 1970eko eta 1980ko hamarkadetan euskararen eta beste hizkuntza zapalduen aldeko mugimenduan genbiltzanontzat (gaztelaniara itzulita ere aurki daiteke). Anekdotak gisa aipatuko dut ZERUKO ARGIAN argitaratu nuen lehen artikuluetako bat liburu honen kritika izan zela. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Abra malkotan



L. MARKUEKIAGA / XDZ

Aingeru Basterretxea Bitorika



Doinua: Aizak hi mutil mainontzi.

Getxo, Muzkiz, Zierbana
itsasoaren laztana.
Arrigunaga ta Ereaga
ezpain musu bana.
Punta Luzeroko sama
edonora eramana,
itsasadarra irenstearen
pausua emana.

Natura eszenario
bizitasunen garraio.
Bizitzan ura gure senari
biziki darraio.
Abra honen kalbario,
negar malkoa dario
eta Portuko agintzaritzai
bost axola zaio.

Ez al dago aukerarik?
Dragatzea ez besterik.
Atzera buelta ez pentsa gero
izango dugunik.
Besotik elkar harturik,
arnasa hartu, ez atzerik.
Entzun dezaten garrasi latza:
Geure Abra bizirik! ■



«Herriaren hitza entzun dadin xerkatzen ditut bideak, artean eta antropologian»

Edozein aitzakiak balioko liguke Eric Dicharryri atea jotzeko, hainbeste ertz baititu sortzaile honek. Arlo ugaritan aurkitzen ahal da bere aipamena. Antropologo eta ikerle lanbidez, artista gustuz, Baionako Euskal Museoan eginiko performanceak eta ikusgai jarritako instalazioak eman ziguten horretarako bidea.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

Zuk sortua den *Mugetaz* erakusketa Baionako Euskal Museoan izan dugu ikusgai, oraintsu arte. Zein izan duzu asmo nagusia?

Euskal espazioa eta euskal denbora berrinterpretatzea izan da nire ideia nagusia, eta aizkoraren bidea hartzea aproposa iruditu zitzaidan horretarako. Argialdea aretoan egin nuen performantza, eta instalazioa bera ere espazio horretarako espresuki egin zen. Bost aizkora ipini nituen erdigunean dagoen goitik beherako hutsunean, zintzilik. Lehena zentroan dago, arkeologia aldezkarri batean irakurri bainuen cromlechetan aizkorak sartzen zituztela, ahalmen profilaktikoa zutelako. Alegia, cromlechen espazioa hilei eskainia zen, baina aizkorak bizidunak babesteko ziren. Transbertsaltasuna nabarmentzeko, zirkuluaren erdian eman dut. Hitz hori usu erabiltzen dugu baina definitzeko ez da hain erraz, azken finean. Instalazio honetatik pasatu diren guztiek egin zuten hemengo transbertsaltasuna. Jorge Oteizak ere puntu horretatik abiatu zuen bere lana, eta horregatik, bere liburuak instalazioko erakusleihoan ipini nituen.

Beste laurak espazioa mugatzeko ipini zenituen.

Garai batean artzainek kaiolaren edo olaren espazioa mugatzeko baliatzen zituzten aizkorak, lau aldeetara bota eta erortzen ziren tokian ezartzen zuten zedarria-edo. Nik beste toki bat hautatu nuen. Artzainek euskal mendietan egiten zituzten mugimenduak hondartzan berregin nituen nik, artzainen mugatzeko horiek imitatuz, eta ekintza horretan eginiko argazkiak instalazioan ipini nituen.

Argazkiak ere zeuk eginak ziren.

Semea baliatu nuen argazkiak egiteko. Gero, Baionako Euskal Museora etorri nintzenean, eskulturak lurrean jartzeko asmoa nekarren, baina aretoaren egitura ikusirik, airean jarri nituen aizkorak, ikusgarriagoa baita. Bestalde, inpaktu handiko ikonoa da aizkora.

Zuk nahi zenuen moduan ulertua izan da?

Kazetari batek galdegin zidan ea ez ote nuen beldurrik horrelako ikurra erabiltzeaz. Ezetz erantzun nion. Finean, aizkora euskal tresna bat da, duela 4.000 urtez geroztik baliatzen dena. Baina galderak bazuen zerbait oso interesgarria eta halaxe adierazi nion, galdera luzatu zidanerako, ikurra denboran manipulatua izan den seinale zela, eta horixe bera zela azpimarratu nahi nuen. Hemen bada aizkora, sugerik ez ordea. Nolabait esanda, Damoklesen ezpatarekin parekatuko nuke.

Terrorismoa Damoklesen ezpata da demokraziarako, edo modu horretan ikusten ahal da. Herriaren hitza errespetatua ez delarik heltzen da terrorismoa, errespetu falta batetik hain zuzen, eta ikusi behar da guk zerbait egiten ahal dugun. Herriaren hitza entzun dadin xerkatzen ditut bideak, antropologo bezala eta artista bezala.

Cromlecharen zirkulua ere irudikatu duzu, aretoaren egitura baliatuta.

Interesgarria litzateke zirkuluaren gainean egiazko lan bat egitea, gure euskal gizartearen zer eragin duen aztertzea. Maskaradetan ere biziki garrantzitsua da biribila, espazioa

mugatzen baitu. Arratsaldean bada beti joko bat, eta antzerki-lan horren mugak zirkularrak dira. Pastoraletan ere horrelakoa zen lehen, eta erreparatzen hasten bagara, deklinabide anitz aurkituko ditugu. Dantzak ere zirkularrak dira. Gaur egungo ohiturez ere beste horrenbeste esan liteke. Kanpoan bizi izan naiz, gazte nintzelarik zazpi bat urte eman nituen Grezian, eta itzuli nintzenean, konturatu nintzen hemen bazirela zenbait berezitasun. Esate baterako, Frantzian besta egiten denean, denak barraren ondoan jartzen dira. Hemen, aldiz, ez. Hemen, edalontziak hartu eta biribilak osatzen dira. Hori azpimarratzea oso interesgarria iruditzen zait.

Bakea ere biribila da?

Bakea harrizko etxea bezala ikusten dut, eta bakoitzak bere harria ekarri beharko dio bakeari. Nik, artista naizen neurrian, nire buruari pausatu nion galdera zera izan zen: zer ekar ote niezaiokeen bake prozesuari. Eta hala sortu zen instalazioa egiteko asmoa.

Antimilitarista zara.

Nire aitatxi Lehen Mundu Gerran elbarritu zen, ezin izaten zuen mugitu. Hurbiletik ikusi eta ulertu dut, beraz, zer den gatazka, haren aztarnak nolakoak diren. Egin ditudan bidaietan ere franko ikasi dut, Libanon adibidez. Horretarako ere egin dut instalazioa. Gazteak hona etortzen direnean, galderak pausatzen dituzte. Adibidez, aizkorak egiazkoak ote diren. Edo zergatik ez ote ditudan kartoizkoak edo plastikozkoak ipini. Hemengo langileek nire diskurtsoa baliatzen dute gazteoi azalpenak emateko, eta esaten zaie gerla ez dela jokoa, eta beldurra ematen du noski, aizkorak eroriko ote diren. Paraleloki ere Damoklesen ezpatarekin duen zerikusia antzematen da.

Nola ikusten duzu Euskal Herriko bake prozesua?

Uste dut terrorismoa aitzakia ona izan dela politikarientzat, botoak eskuratu nahi zituz-



"Bakea harrizko etxea bezala ikusten dut, eta bakoitzak bere harria ekarri beharko dio bakeari"

ten bakoitzean terrorismoa ateratzen zuten beren sakelatik. Orain, beste horrenbeste gertatzen ari da bakearekin. Denak ados dira, oso kontent dira bakearekin, baina gauzak ez dira aitzinatzen. Aieteko Bilkura duela urtebete pasatu da, eta urtebeteren ondotik ez dugu aldaketa handirik ikusten. Presoek sakanatuta jarraitzen dute. Telebista eta hedabideak gazta souffle modukoak dira. Gauza bat

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

13

ZIALA SARE SOZIALA

AZKEN-LAUDENAK

Otsailak 9: LARRAINTZAR
17.30
Kultur Etxea

Julen Zelaieta
Aritz Saragueta
Oier Lakuntza
Ekaitz Astiz
Haizea Beruete
Amaia Elizagoien

Otsailak 10: ITUREN
17.30
Udaletxeko ganbara

Eneko Lazkoz
Aimar Karrika
Iñaki Aleman
Egoitz Gorosterrazu
Alazne Untxalo
Ioar Tainta

www.nafarroakotxapelketa.com

Antolatzailea:

Laguntzailea:



badenean, milaka artikulua eta berri ateratzen dira, eta gero, plof. Bakea aitzakia berri bat da, ikusten ahal denez.

Artearen bidez ere, bakeari bultzada ematea proposatu izan duzu.

Deialdia zabaltzen diet artistei. Zeren, esaten baita beti artea eta politika bi arlo direla, berezi egin behar direla. Baina hemen, Baionako Euskal Museoko bilduman, horrelako obra bat sartzeko politikariaren iritzia behar da. Eta orduan entzuten diren diskurtsoak ez dira berdinak.

Ikerlaria zara. Euskal umorea aztertu duzu, maskaradak, hezkuntzaren ekologia, bertsolaritzaren bat-batekotasuna... Nola heldu zara arte mundura?

Ikerlea naiz ogibidez. Eta badira hamar bat urte artean hasi nintzela. Erakusketak egiten ditut, baina saiatzen naiz urtero agertu behar horri ihes egiten. Arte munduan ubikuitatearen dohaina bogan da orain. Inportantea da artistentzat bost edo hamar tokitan izatea ber momentuan. Eta hori erokeria da. Horren kontra ere borrokatzen naiz. Saiatzen naiz nire gaiak sakontzen, eta muinera heldu naitenean erabakitzen dut nire lana erakusteko garaia heldu ote den. Ez dakit hurrengo erakusketa noiz egingo dudana, baina bederen saiatzen naiz denbora hartzen. Wittgensteinek zioen bezala, garrantzitsua da nork bere denbora hartzea. Eta berak bizitza osoan liburu bakarra argitaratu zuen. Bakarra baina aski ezaguna. Uste dut badugula harengandik zer ikasia.

Filosofia maite duzu, performantzean eta erakusketan baliatu dituzun liburuak ikusi besterik ez dago.

Saiatzen naiz iturri anitzetatik edaten. Inportantea da niretzat, ez baitut arlo bakarrean

**Aizkorak
Argialdea aretoko
hutsunean
zintzilik.**

**“Arte munduan ubikuitatearen
dohaina bogan da orain.
Inportantea da artistentzat
bost edo hamar tokitan izatea
ber momentuan, eta hori
erokeria da”**

geratu nahi. Arlo ugari hartzea ezinbestekoa da niretzat. Egin dudana instalazioan eta performantzean, filosofia presente da, eta literatura, musika, argazkilaritza, bideoa...

Zer nolako burua duzu hainbeste arlo ulertu eta biltzeko?

Denak batzen dituzunean, zure nia eraikitzen duzu. Hedabideek usu esaten dizute, zu bertsolaria zara, edo idazlea, edo dena delakoa. Etiketak maite dituzte, eta niretzat biziki zaila da, ez baitiot nire buruari etiketarik ematen.

Sortzailea zarela esan behar zenuke.

Bai. Antropologoaren kasketa janzten dudanean ere sorkuntza prozesua ikertzen dut. Antzerkian jardun dudanean, Maskaradak ikertu nituenean ere, hori nuen gaia. Bertsolaritzaren mundua ikertu nuenean ere ber gauza, eta gero hiria ikertu nuenean edo umoreari heldu nionean ere, horixe izan nuen muina. Eta orain, antzerki konpainia batekin lan egiten dut eta sorkuntza prozesua ikertzen dut. Nire zioa, sorkuntzaren ekologia ukaitea da. Zeren eta sorkuntzaren baitan, sorkuntzaren testuingurua, obra eta harrera hartu behar dira kontuan. Hezkuntzan ere kontzeptu eta molde teoriko horiek baliatu

nituen, esan nahi baita modelo alosterikoa. Hitz urritan esateko, proteina baten ingurumena aldatzen bada, proteina bera ere aldatzen da. Hori aplikatzen saiatzen naiz. Dena artikulatu ondoren, sinplea da. Erraza da, berez. Artikulazioa da zailena.

Zein da zure hurrengo proiektua?

Pantailek duten eraginaz jardungo dut nire hurrengo liburuan, eta hortik abiatuko da nire lan artistikoa ere. Geure bidaia birtualek zenbaterainoko garrantzia hartzen duten azpimarratu behar genuke, zer eragin duten, zer garrantzia, zein den horren emaitza. Bidaia birtual horiek errealki bizi baitira gero. Ingurumenarekin ukan ditugun harremanez eraikiak gara. Nire semeak iragarkiren bat ahoan hartuta erantzuten dit batzuetan. Behin, halaxe esan nion: “zure burmuina publizitateez eraikia da azken finean”. Ez gara sobera jabetzen pantailek duten inpaktuaz. Ez da nahikoa ikertzen.

Hasi zara horretan?

Orain, nire nahia da, idatzi ditudan ikerketa-testu guztiak euskaratzea. Baina horretarako dirulaguntza bilatu beharko dut. ■



dokuSAREA

Hilero dokumental bat proiektatuko da Euskal Herriko taberna, gaztetxe, kultur etxe eta euskaltegietan, guztiak euskaraz edo euskarazko azpidatziekin.

**Anima zaitez
zure herrian
antolatzerara!**

HILABETE HONETAN



Euskal Herria: Ezkutuko zorra
The hidden debt

ESKUTUKO ZORRA

Historikoki, gure kontsumorako zein industriako erabiltzen ziren lehengaien jatorria Euskal Herrian zegoen batez ere. Gaur egun, ordea kontsumitzen ditugun material gehienak oso urrutitik ekartzen dira. Euskal Herrian kontsumitu eta ekoitzen dugun produktu ugari, Hegoaldeko herrialde txirotuetan dute jatorria, bertan kutsatzea edo langileak baldintza prekarioetan kontratatzea errazagoa eta merkeagoa baita.


Somalian arrantzatzea, Bolivia mineralak erauztea edo Indonesian nekazal-erregaiak landatzea merkea izaten da, kutsatzen denagatik ez delako ordaintzen, besteak beste. Iparraldeko herrialde industrializatu edo aberastuok onura ateratzen dugu hortik; kontsumizaildeok onua enpresek eta gobernuek onura ateratzen dute injustizia horretatik.

- > Ekologistak martxan
- > 45min
- > 2011

HARREMANETARAKO

EGUZKI BIDEOAK

948 211 537 / 608 928 631
dokusarea@eguzkibideoak.info
www.eguzkibideoak.info



Helduen literatura

Idazten ari dela idazten duen idazlea
Iban Zaldia
Elkar, 2012

Literokeria edo literamina

AZALEAN BERTAN, koaderno baten orrietan idatzita, argi agertzen zaigu zer topatuko dugun barruko orrietan: idazlea. Idazlea eta bere lana. Idazlea eta bere zirkustantziak. Idazlea eta bere burutazioak. Idazlearen ingurukoak aletuko zaizkigu ipuin laburren bilduma honetan. Aukera ederra ematen digu liburu honek literatur sistemaren partaideak ispilu zalduarraren aurrean ipintzeko eta bertan nolako formak hartzen dituzten ikusteko. Idazlea, irakurlea, kritikaria, literatur irakaslea edo liburudendak agertuko zaizkigu bata bestearen atzetik egile honen irudimenak hauspotuta. Horretarako Kafka eta The Smiths ditugu liburu honetan bisitari eta bidelagun, bataren begirada fantastikoak kutsatzen ditu narrazio laburrak han eta hemen, eta bestearen letretako umorea ere (beltza? ironikoa?) topa dezakegu tarteka. Biak Zalduaren idazteko moduaren ezaugarri ezagunak direnak, bidenabar.

Baina, egia esan, idazleaz eta bere inguruneaz hitz egitean funtsean literaturaz ari gara. Hori baita lan honetako gaia. Eta zer da literatura? Zeri buruz dihardugu (fikzioa) idazteaz ari garenean? Hamaika erantzun dituen galdera honi azpigituluak emango dio argia oraingoan, lan honen ikuspuntua agerian utziz: “Idazten ari dela idazten duen idazlea edo literatura gaixotasun gisa”. Ipuinetako batean pertsonaia batek beste bati hurrengoak esaten dio: “Literatura gaitz bat duk. Bizitza zer den ez dakitenen izurria”. Hau da orriotako ideia nagusia. Honen haritik etorriko zaizkigu, besteak beste, obsesio bihurtzen den bilaketa eta idazketa, inguruko bizipenak zurrupatzten dituen idazle-kaparra edo istorioak kontatzeko ausardiaren aldarria.

Errealitatearen eta fikzioaren arteko ahobiko harremanak nola marraztu dituen gustatu zait, honekin gogoeta metaliterarioa sustatu eta autofikzioaren mugak zabaltu dituela uste dut. Batetik, literaturari buruz berba egiteko solaskide moduko bat izan daiteke ipuin bilduma hau, akuilua, gai-jartzailea. Bestetik, maiz topatuko dugu lehen pertsonen hitz egiten digun idazlea eta bere ibilerak, literaturak sentiarazi eta pentsarazi dizkionak konpartituz, literatura gaixotasun gisa bizi duenaren testigantza emanez. Azken finean norbaitek noizbait esan zuen bezala, literaturak bizia eman eta bizia kendu ere egin dezake.

Literatura maite dugunok badakigu pasio horrek zer-nolako eragina duen gugan, izan ere, maitasunak (eta maitemina) erokeriaz eta gaixotasunaz badu, literaturak ere berdin, eta hori da liburu honetatik ateratzen duguna. Idazleak istorioak lapurtzen ditu irakurleok konpartitzeko, eta lan horretan zoriona ezagutu dezake bere lanen arrakasta ikusita, edo zoritxarra ezagutzear min hori idazteko grina sumatu, narratzaileak narrazioetako batzuetan dioskunez, modu honetan bizitzatik ihes egin edo bizitza bete-betean bizi. Amaitzeko esan, hau idatzi dizuen irakurle honek irribarre konplizearekin amaitu dituela ipuin gehienak, ulertu duelako literokeriaren edo literaminaren gaitz berak jota dagoela bera ere. ■

Amaia Alvarez Uribe



Urruneko motorrak mila zaldi
Joan Mari Irigoien
+ Antton Olariaga
Elkar, Xaguxar bilduma, 2012

Pentsarazteko jolas ilustratua

Gaztetxoei begirako ahalegin interesgarria plazaratu du Elkar argitaletxeak, bere Xaguxar bilduma tarteko. Joan Mari Irigoien idazlea eta Antton Olariaga marrazkilari eklektikoa ditu egile, eta erronka itxura batean zail bati heldzen diote, nork bere baliabideak dituela: poesia gustagarri egitea. Molde honetan ohiko ez diren gaiak ere aintzat hartu dituzte. Esate baterako, teknologia berria edo kimika bezalako eskola ikasgaiak. Adibidetxo bat. *Kobre eta zink; / a, zer tripako mink! / Gas bihurtu nabi eta ezink! // Karbono eta silizio / soprano eta tenore, / aintza eta ohore: // Milango Scalatik guri deika, / Ainhoa Arteta; / haren ondoan, berri; / Plazido Domeka...*

Pikanteagoa da bata –12 urtetik gorakoena, *Sasiak mendia jan*– eta jostariagoa bestea –10 urtetik gorakoena, *Urruneko motorrak mila zaldi*–, aho-korapiloak, txisteak eta hitz-jokoak bezalako dibertimenduak proposatzen dituen. Pentsaraztea edo hezteak eta ondo pasatzea eskutik aise joan daitezkeela premisa gogoan. ■

Garbine Ubeda Goikoetxea



Euskal Herriko Gazte Orkestra. **Zuzendaria:** Juan José Ocón.
Bakarlariak: María Rallo (biola), eta Julen Zelaia (biolina).
Egitaraua: Shostakovitx eta Mozarten obrak. **Lekua:** Gasteizko
 Principal Antzokia. **Data:** urtarrilaren 3a.

Etorkizun oparoa

HERRI BATEN BENETAKO ABERASTASUNA bere kultura da, dudarik gabe. Horrexegatik, krisialdietan ez dugu iparra galdu behar, nahiz eta ekonomiaren arazoak buruhauste garrantzitsuenak izan, kulturaren etorkizuna eta gazteen sentsibilitatearen hezkuntza izan behar ditugu kezka nagusi, astotze orokorraren kontra.

Euskal Herriko Gazte Orkestrak hamabost urteko ibilbide interesgarria dauka, eta aipatutako helburuarekin bat datorrena. Hainbat talentu atera dira kabia honetatik, eta asko eta asko aterako dira. Honen froga orkestraren neguko kontzertu zikloa izan da. Interpretazio doiak, gustu onekoak, Juan José Ocón-en batuta atsegin eta goxoaren agindupean, taldearen kalitatearen seinalea izan ziren, baina saioaren alde deigarriena bakarlariak izan ziren. María Rallok, biolan, hamabost urterekin, eta Julen Zelaia hamazazpi urteko biolin joleak musikaltasun eta taula gaineko taxuaren lezioak eman zituzten.

Dimitri Shostakovitxekin hasi zen kontzertua. Egile honen “110 Ganbera-sinfonia”, 8. hari-laukotearen *ensemble*-rako modaketa da, “faxismoaren eta gerraren biktimei” eskainia, eta Rudolf Barshairen hari-orkestrarako bertsioaren bitartez egina. Bigarren Mundu Gerrak jende guztiari sortu zion zauri sakona adierazi nahi izan zuen Shostakovitxek, lan honekin. Ederki transmititu zituzten Gazte Orkestrako obrak azaltzen dituen sentimendu guztiak: mehatxua, beldurra, etsipena... ezin hobeki irudikatu ziren. Sonoritate bero eta musikaltasun malgua izan ziren ezaugarri nagusiak.

Giro ludikoagoan sartu ginen jarraian Mozarten “Biolin, biola eta orkestrarako sinfonia kontzertantea, K 364” obrarekin. Biolin bakarlariarentzat, biola bakarlariarentzat, bi oboe, bi tronpa eta harietarako idatzita dago lana, eta esan daiteke sinfoniaren eta kontzertuaren artean dagoen genero moduko delan hau, oso aproposa Rallo eta Zelaia bakarlariak luzitzeko, benetan zailak baitira haien partiturak. Ez ziguten huts egin bi gaztetxoek. Eskarmentu handiko artistak bezala aritu ziren, seguruak eta taxudunak. Primeran bete zuten bere rola, bai teknika aldetik, bai interpretazioaren aldetik. Eta teknika soberan dutela agerian geratu zen, propina gisa jo zuten duoarekin, deabrukeriaz josia baina erabat menderatua.

Orkestrak ere bis bat oparitu zion publikoari, oso berezia. Euskal Herriko Gazte Orkestraren kidea izandako Fernando Velazquez konpositorearen *Lo imposible* filmaren soinu banda, hain saritua. Benetan polita, benetan ondo interpretatua. Zorionak. ■

Montserrat Auzmendi



ikusi ikasi 2013
 txotxongiloak, lpuin kontalariak, magia, antzerkia...
 Bilboko Haur Kultur Zirkuitua | 2-8 urte

02/06 POTXIN ETA PATXIN
 18:00etan Errekaldeko udalategian

02/07 MONDA ETA LIRONDA
 18:00etan Tiboli eskolan

02/08 TOR MAGOA
 18:00etan Abandoko udalategian

02/09 TTINBILI-TTINBALA
 11:00etan Deustoko Bidarte udalategian

02/12 ANIMAGIC
 18:00etan Begoñako udalategian

02/13 BAT, BI, HIRU...FESTA!
 18:00etan Errekaldeko udalategian

02/14 ONINTZE GOITIZ KONTALARIA
 18:00etan Tiboli eskolan

02/15 APIKA TALDEA
 18:00etan Abandoko udalategian

02/16 TXOBORRO MAGOA
 11:00etan Deustoko Bidarte udalategian

02/19 BAZEN BEHIN CLOWN
 18:00etan Begoñako udalategian

02/20 MAGIKLOWN
 18:00etan Errekaldeko udalategian

02/21 ZIRKUN ZIRKO
 18:00etan Zamakola eskolan

02/22 ELVI
 18:00etan Abandoko udalategian

02/23 ZURRUNKA ANTZERKI TALDEA
 11:00etan Deustoko Bidarte udalategian

02/26 EIDABE ANTZERKIA
 18:00etan Begoñako Udalategian

Bilbao **topagunea**

Hitz gezidunak

GIZEN HOBETO		GERRA PERTSONAIA- REN ABIZENA		OSO, GUZTIZ		TELEBISTA INGURU		MODU ALDERDI KARLISTA		ZUHATZ MOTA BERTUTEA		MANTENDU, EUTSI GORPUTZE- KO ONDOEZ
				ZUBEROTAR MUSIKA NOTA								
DISTRIRATUZ (BI HITZ) ORRIAK MOZTEKO MAKINA						ESPEZIA AFRODI- SIAKOA NITROGENOA						
									BADAUKA ZU			
HARAGIAREN MINTZA	HERRI HIZ- KERAN, BADA ITSASUN- TZIETAKO LEHIATILA									INDIOAREN IKURRA ETSAI BIHURTU		
			ZIKINA, LIZUNA						DUT PERTSO- NAIAREN JAIOTERRIA			OTOITZ EGITEN
DIHOA PARE BAT												
									ZERGA (ALDERAN- TZIZ) PINU MOTA			
TAMAINA HANDIKO SUGEA BURUGABEKI				DAUKA EGUR		PERTSONAIA- REN IZENA GAUZA, KAPAZ		LITROA BATERE ATE BARIK		GARAI, DENBORA SUARI DARIONA		
											BAT IPAR MENDEBALDE	
KARE OGIBIDEZ ZILARRA LANTZEN DUENA				AURREZ, LEHENAGO GIGA								
									ANTXUMEA (BIZKAIAIN)			

Kike Amonarrizen umorea

Bikotekidearekin gaizki

– K a i x o
Miren! Aspaldi-
koa! Zenbat den-
bora elkar ikusi
gabe! Zer moduz
bizi haiz?

– Bada, egia
esan... Ez oso
ondo!

– Kontxo! Zer
dun bada?

– Hara! Mikel
uztektan nabilen. Ez gai-



tun batere ondo
konpontzen
azken bolada
honetan. Kiriok
jota nabilen egun
guztia, nire one-
tik aterata... Lau
kilo ere galdu
ditinat jada!

– Eta zergatik ez
dun uzten?

– Zortzi kilo
galdu nahi ditinat eta!



Soluzioa

I	A	R	A	L	A	D	U	I	N	I	N	O	A	T	O	A	R	O	I	K	A	M
O	T	E	L	A	B	A	D	I	I	D	E	T	X	O	A	S	A	T	I	I	K	A
E	R	O	T	E	L	A	B	A	D	I	I	D	E	T	X	O	A	S	A	T	I	K
T	B	E	R	O	T	E	L	A	B	A	D	I	I	D	E	T	X	O	A	S	A	T
T	X	I	R	O	T	E	L	A	B	A	D	I	I	D	E	T	X	O	A	S	A	T
G	E	R	O	T	E	L	A	B	A	D	I	I	D	E	T	X	O	A	S	A	T	I
L	O	B	E	R	O	T	E	L	A	B	A	D	I	I	D	E	T	X	O	A	S	A
H	O	B	E	R	O	T	E	L	A	B	A	D	I	I	D	E	T	X	O	A	S	A
G	I	L	O	T	E	L	A	B	A	D	I	I	D	E	T	X	O	A	S	A	T	I
G	I	L	O	T	E	L	A	B	A	D	I	I	D	E	T	X	O	A	S	A	T	I
B	I	O	A	S	A	T	O	A	R	O	I	K	A	M	A							
B	O	A	S	A	T	O	A	R	O	I	K	A	M	A								
Z	E	N	T	G	I	S	U	A	U	R	E											
Z	I	L	A	R	G	I	L	A	R	G	I	L	A	R	G	I	L	A	R	G	I	L

Itzulerarik gabeko agurra

“AMAK ESAN ZUEN, ‘hiltzen bagaituzte, denok elkarrekin hilko gara’. Aitak ordea, ‘ez, bizitza osoa dute aurretik’. Eta horrela hartu zen erabakia”, dio Josefina. Francoren altxamenduak ekarritako gerraren ondorioz, bombardaketetatik babesteko 1937an Euskal Herritik Britainia Handira erbesteratu zituzten 4.000 haurretako bat da Josefina. “Ez da luzerako izango, hiru hilabete baino ez”, esan zion aitak. Hala pentsatzen zuten denek, errepublikarrek irabaziko zutela guda eta etxera laster bueltatuko zirela seme-alabak. Gehienak itzuli ziren, bai, baina diktadurapera. 250 haur, dena den, betiko geratu zen Ingalaterran, guraso-enganetik eta aberritik urrun, “nortasunik gabe”.

Josefina, Valentin, Juanita, Felix, Carmen, Manuel... Guztira hamalau ahots, gaur egun 80 eta 90 urte artean dituzten gerrako haurren hamalau bizipen jaso ditu *Agur esatea* filmak. Beren historia kontatzen duten off ahots horiek dira lanaren muin eta arima. Eta ahotsen lagungarri, garaiko irudiak (ikus-entzunezkoak nahiz argazkiak) eta animazioa tartekatzen dituen uztarketa bitxia. Bideo-jokoen estetika kutsua duen animazioarekin esperimentatu dute egileek, leku-kotzak pantailaratzeko baliabide gisa, baina indartsuagoak eta naturalagoak iruditu zaizkit sasoi hartako argazki eta bideoak erakusten dituzten zatiak. Bizipenen bidelagun aproposak dira Iñaki Salvadorren musika atsegina eta sinesgarritasun handia duten soinu-efektuak.

Kronologikoki egiten du aurrera kontakizunak. Gerraren hasiera, Gernikako bombardaketa, adin txikikoak ebakuatzeko erabakia, agurraren ordua, Santurtzitik Southamptonera 4.000 haur zeramatzan *Habana* itsason-

tziak eginiko bidaia gorabeheratsua –Francoren *La Cervera* ontziaren mehatxua tarteko–, ingelesen harrera, Euskal Umeen Kanpalekua, horien sakabanaketa Britainia Handiko etxe eta koloniatara... Eta bidegurutzea: 1939an, Euskal Herrira ekarri zituzten umeak –gainera, Francoren erregimenak bueltan nahi zituen, kosta ahala kosta–, baina gutxi batzuek, 250 inguruk, han egingo zuten bizitza, urtetan Euskal Herria eta familia ikusi gabe. Gurasoek ez zituzten galdegina, hilda zeudelako, edo erbesteratuta, edo egoera zela-eta ez etortzeko oharra bidali zitelako seme-alabei.

Horren guztiaren kontakizuna jaso du *Agur esatea* filmak, baita protagonisten sentimenduak, emozioak eta oroitzapenak ere. Gure historiaren pasarte hura berreskuratzen duen dokumentu baliotsua da, zalantzarik gabe, ahanzturan erori ez dadin burururiko ordubete eta laurden inguruko lan txukuna. Aukera bat baino gehiago izango da berau ikusteko: otsailaren 8an Gernikan eskainiko dute, Elorrion eta Arrasaten ere hitzartuta dituzte proiektzioak eta beste hainbat herritako eta hiriburuetak zinearetoetan ere bidea egin nahi du filmak. Otsaila bukaeran, gainera, Gasteizko Euskal Zine Astean hartuko du parte. Euskarazko bertsioa emango dute horietan, baina aipatzekoa da jatorrizkoan (*To Say Goodbye*) ingelesez mintzo direla gerrako haurrak. Zuzendaria ere ingelesa da, Matt Richards, eta Izaskun Arandia tolosarrarekin batera prestatu du gidioa. Oro har historia bazter utzi dituen haur hauen testigantza “bizi mantentzea”

izan dute helburu. ■

**Mikel Garcia
Idiakez**



Zentral nuklear gutxiago, baina CO₂ emisio txikiagoa

BERRIKI argitara emandako datuen arabera, Alemanian, 2011. urtean, nahiz eta hamazazpi erreaktore nuklear geldirik izan karbono dioxido emisioek behera egin zuten 2010eko datuekin alderatuz. 2011n 917 milioi tona aireratu ziren, eta 2010ean 944 milioi tona izan ziren emititutakoak, hau da, %2,9 gehiago.

2011ko negua ez zen oso gogorra izan Alemanian, eta ondorioz, aurreko urtean baino 24 milioi tona gutxiago emititu ziren etxeen berokuntzaren alorrean; baina aldi berean, esan beharra dago urte horretan BPG %3 hazi zela. Horren arabera, ekonomiaren hazkundeak ez zuen eragin emisio hazkunderik. Datu hori ulertezina da energia berriztagarrien aurrerakada kontuan hartu gabe.

2020 bitartean Alemaniak karbono dioxido emisioetan %40ko murrizketak egitea du helburu, nahiz eta Europar Batasunak %20koa egitera besterik ez duen behartzen. ■



Intsektu batzuek badakite zenbatzen

Valentziako Unibertsitateko ikerlari talde baten arabera, irinaren labezomorroaren (*Tenebrio molitor*) arrek badakite zenbat arerio –hau da, espezie bereko beste arrak– izango dituzten eme batekin sexu harremanak edukitzeko garaian. *Frontiers in Psychology* aldizkarian argitaratutako artikuluan eman dute ikerlanaren berri.

ttiki.com/46597 (Ingeleseaz)
ttiki.com/46598 (Gaztelaniaz)

Mareetako energiaren gorabeherak

Renk-eko (Bretainia) mareen zentralak arazo ekologikoak sortu ditu bertako badian. Berriki, AEBetako ikerlari batzuek zentral mareomotrizek sortu ditzaketen arazoen berri eman digute. Diotenez, turbina asko instalatzeak badia bateko uraren berriztatzea moteldu dezake.

ttiki.com/46599
(Gaztelaniaz)

Zertarako hartu zuen EPOa Armstrongek?



2013KO URTARRILEKO berri aipatuenetakoa izan da Armstrong txirrindulari ohiak elkarrizketa batean esandakoa. Aitortzaren zergatiak gorabehera, aukera ona izan daiteke EPOari buruzko datu soil batzuk gogoratzeko.

Eritropoietinaren siglak dira EPO. Hormona natural hori 1906. urtean aurkitu zuten, eta giltzurrunak jariatzen du. Globulu gorriak

sortzen ditu, eta hemorragia dagoenean oxigeno galera konpentsatzen du.

Kirolariek EPOa bere buruari injektatzean oxigeno ekarpena hobetzen dute, eta horrela, denbora luzeagoz egin ditzakete ahalegin handiak. Aldiz, odola loditu egiten denez arazo kardio-baskularrak edota garunekoak izateko arriskua areagotu egiten da. ■



Jogurtek oso luze iraun dezakete

Madrilen dagoen CEU San Pabloko Esther Carrera ikerlariaren arabera, hozte baldintzak egokiak baldin badira, jogurtak denbora oso luzez egon daitezke jateko moduan. Ondorioz, gaur egun jogurtei ezartzen zaien iraungitze-epea handitzerik izan daiteke, baina baldintza jakinetan.

ttiki.com/46600
(Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Trikimailuak

LANDAREAK gure onurarako lantzen ditugunean, dena delakoaren xerkan, helburu ditugun etekinen babeserako bide ugari da. Produktu kimiko pozoi-tsuetatik urrun, gero eta hedatuagoa dago gai naturalen erabilera.

Izurritea eragiten duen intsektuari bera akabatu-ko duen aukaria aldame-
nean jartzea da bide bat. Aukari batzuek izurri-
gilea zuzenean jan egingo dute. Beste batzuek izutu eta uxatu egingo dute, geurean nahi ez ditugunak auzo-koaren landareetara bota. Hurrengo belaunaldiak haztea eragotzi eta izurriaren katea eten duenik ere bada. Horietako batzuek, adibidez, hazteko toki hoberik ez eta izurria eragiten duenaren gorputzaren barruan ziztatzen dituzte bere ondorengoak sortuko dituzten arrautzak... Bai bihurriak!

“Gure” landareetan kalteak eragiten dituzten intsektuak ez dira ez jainkoaren hurrengoak. Kontrario asko izateaz gain gaixo-



Potasa xaboia, landareari kalterik egin gabe intsektuak akabatzeko bide onena.

tu ere egiten dira, gaizkitzeraino batzuetan... Ezagutzen ditugun neurrian bere ahulgune horietan zorrotz jo dezakegu: gaitzen bat sortuko dien bakterioa edo birusa zabaltzen badugu, atzera egin behar izurriteak!

Gure etekinen zaintzan makia-
velikoagoak izaten ere badakigu. Izurrite batzuk laborategietan deuseztatzen adibidez. Espezie kaltegarriaren izurritearen indarra ugalkortasun oparoan oinarritzen bada —urtean bost belaunaldi hazteko gai den zorri-
rik bada...— izu-

JABONES DE GUARA

rria makaldu eta bere kaltea hutsaren hurren-
goratzeko, antzuak diren arrak sortu eta erruz hedatzen dira. Ar horien proportzioaren arabera jaitsiko da ugalkortasuna. Burura-
tzen dira bai honelako trikimailuak...

Makiavelo, laborate-
gi eta trikimailu handi-
rik gabe ere intsektuak gibelera ditzakegu. Xaboiarekin esaterako, erraz asko. Potasa xaboia da onena. Lan-

dareei kalte arrastorik ez eta izurritea ito egingo du. Ia intsektu guztiek azalean dute eskeletoa, armazoi eta babes den exoeskeletoa. Xaboiak eskeleto hori kalte-
tzen du eta arnasa hartzea zailduz hil egingo du. Hori da garbitzea, xaboi-
z garbitzea...

Intsektuei aurka egiteko erabil-
tzen dugun edozein gairi xaboi hori nahastea komeni da. Kolpea latza izan-
go da. Xaboiak eta gai kaltegarria, bikoitza. Bik adina. Bikaina. ■



Minutu bat, egun bat

Minutua joan eta minutua etorri, eguna joan eta eguna etorri, gure nekazaritza pobretzen ari da, gure herria txirotzen ari da. Europar Batasunean minutu-
ro familia batek laborantza uzten du. Euskal Auto-
nomia Erkidegoan egunero familia batek nekazari-
tza uzten du. Gure paisaia biziaren aldeko lana berritzen al dugu, bestela porru-hazi ederrak aterako ditugu... ■




Babeslea: ALKARTASUNA, Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

ALKARTASUNA
Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

Erosi gure produktuak online
2013ko EGUTEGIA SALGAI

T 943 361 114 · alkartasuna@usurbil.com · www.alkartasunausurbil.com

Kez egindako mezuak, Greziatik Australiaraino



Goian eta ezkerrean, Polibio, ke seinale sistema konplexua asmatu zuena; eskuinean Txinako Harresi Handia, ke seinaleak zabaltzeko kanal eraginkorra. Alboko argazkian: iragan abuztuaren 13an Usina do Gasômetron (Porto Alegre, Brasil) aurtengo irailean egingo den Mercosurren 9. biurtekoa iragarri eta ekitaldiko zuzendaritza taldea aurkeztu zuten ke seinaleak erabiliz. Biurtekoak, besteak beste, komunikazio estrategia tradizionalak berrinterpretatzea izango du xede.

MEGALOPOLI (ANTZINAKO GREZIA), K.a. 150. Polibio historialariak (K.a. 200-118) informazio konplexua distantzia handitan oso azkar zabaltzea ahalbidetzen zuen komunikazio sistema asmatu zuen. Grezierazko karaktere alfabetiko bakoitzari zenbaki bat esleitu zion eta zenbaki horiek urrutira transmititzeko hainbat su edo zuzi erabili zituen. Hots, kearen bidez zenbaki multzoak igorri zitezkeen, eta Polibioren kodea jakinez gero, zenbaki multzoak hitz bihurtzen ziren. Zenbakiak hizkietan itzultzeko kode horri Polibioren Karratua deritzo, eta historian zehar kriptografian oso sistema ezagun eta erabilia izan da.

Baina greziarrak ez ziren Antzinan ke seinaleak erabili zituzten bakarrak izan. Txinako Inperio zabalean ere komunikazio sistema azkar eta eraginkorra behar zuten, eta bide bikaina eraikia zuten horretarako: Harresi Handia. Etsaien eraso berri emateko, harresiko soldaduek ke seinaleak bidaltzen zituzten. Dorrez dorre, mezuak ehunka kilometro egin zitzakeen ordu gutxitan.

Filmei kasu eginez gero, Iparmerikako indioak izan ziren ke seinaleen erabiltzaile nagusiak. Ikusi dugu ez zirela ez bakarrak ez lehenak izan, eta haien sistemek ez zuten Polibioren kodearen sofistikaziorik. Jatorrian, tribu bakoitzak bere seinale sistema zuen, ziurrenik, arerioak igorri nahi zituzten mezuak uler ez zitzaizkien. Baina kolonizazioak etsai komuna ekarri zien, eta oinarritzko seinale batzuk behintzat bateratu zituzten: ke bola batek adi egoteko esan nahi zuen, bi bolekin dena lasai zegoela adierazten zuten, eta hiruk arazoak eta arriskuak iragaritzen zituzten.

Oro har, kezko seinaleak arrotzen presentzia jakinarazteko erabili izan diren arren, Australiako aborigenek alderantzizko metodoa erabiltzen zuten: lurralde arrotzean sartzen zenak bidaltzen zituzten ke seinaleak, bertakoei han zegoela eta arazorik nahi ez zuela jakinarazteko.

Gaur egun, bada oraindik denok ulertzen dugun ke seinalea erabiltzen duen instituzio bat: ke zuriak *Habemus Papam* esan nahi du. ■

Arrastoak

Zergatik dute zuloa donutek?

DOUGHNUT hitzaren jatorria garbia da: *dough* hitzak oreka esan nahi du eta *nut*-ek, berriz, intxaurra. Ez dago hain garbi gizakia noiz zen intxaurrezko opilak egiten, baina Erdi Aroan dagoeneko egiten zituztela uste da. 1803an aipatu zituzten Ingalaterrako erreza liburu batean, baina donut haiek ez zuten erdian zulorik. Hori bai, oso zaila zen ore guztia berdin egostea eta maiz opilaren erdiguneko oreka gordinik geratzen zen.

1916an emandako elkarriketa batean, Hanson Gregory itsas kapitain estatubatuarrek adierazi zuen berak asmatu zuela donutaren zuloa, 1847an. Artean, Gregoryk 16 urte besterik ez zituen, eta merkatari-tza ontzi batean lanean ari zela, intxaurrezko opilaren erdigune gordinaz nazkatuta, erdian zulo bat egitea bururatu omen zitzaion. Eskura zeukan piperbeltz ontzia hartu, opilaren erdigunea zanpatu eta horrela sortu omen zuen forma ezaguna. Gero amari esan omen zion “sekretua”. Eta forma hura berehala zabaltzeko eta nagusitu zen. ■



FOODS FOR THE SOUL

Aterrunea ekaitzaren erdian

Argia Sarien aurtengo edizioak denetarik utzi digu: eskariak eta txaloak, txisteak eta momentu hunkigarriak, despedidak, omenaldiak, hausnarketak... Beste behin ere, kazetaritzako eta kultur gintzako ordezkarien plaza bilakatu da Usurbilgo Atxega jauregia.

| URKO APAOLAZA AVILA |

Argazkiak: Dani Blanco

EURIAK, ELURRAK ETA TXINGORRAK tregua txikia eskaini zuen Argia Sarien banaketan. Aterki gabe eta lehor iritsi ziren gonbidatuak zitara. Baina euskalgintzako eragileek badakite bustitzen, badakite oinak lokatzetan sartzen, ohituta daude. Horixe izan zen ekitaldiko aldarrikapen nagusietakoa.

Otordu aurrean ARGIAk kaleratutako Bixente Ameztoren azalen bildumaren berri eman zuen Elixabete Garmendiak; bera eta Joseba Sarriornandia aritu dira buru-belarri proiektuan. Marraskilariak 1978an aste-riarentzat egindako hamarnaka portada dira, garai hartako giroaren erakusgarri paregabeak.

Postrearen orduan Xabier Letona ARGIAko zuzendariak hitz batzuk egin zituen euskal prentsaren egoeraz (37. orrialdean hitzaldia osorik), eta herri ekimeneko komunikabideen eta hedabide publikoen finantzazioan dauden aldeak azpimarratu zituen.

Sarien banaketa hastearrekin, Bertsoa.com-eko Jexux Mari Irazuk datu andana eman zuen proiektuaren sendotasuna azpimarratzeko: “2005ean, Youtubek Internet ezagutu baino lehen, bertsoa jada bazebilen sarean”. Bestetik, Oier Araolaza Dantzan.com-eko sortzaileak webgunearen zailtasunak nabarmendu zituen. Hilabete batzuez ixtera beharturik, dantzarien komunitateak lagunduta berpiztu dute Dantzan.com. “Badakigu epe laburreko lora izango dela hau” aitortu zuen Araolazak, baina sinetsita agertu zen dantzari eta dantzazaleen artean beti izango dela komunikatzeko behar hori.

Edu Lartanguren *Berria*n elkarriketatu dituen ehunka sortzaileak



Zutik: Estepan Aldamitz eta Nerea Iriarte (*Azpimarra*), Arantza Kaltzada (*Portobello*, Asier Leozen ordezkari), Maddalen Iriarte (*Azpimarra*), Felipe Juaristi (Euskadi Irratia), Edu Lartanguren (*Berria*), Eire Vila eta Arantxa Uriguen (*Dantzan.com*). Makurtuta: Beñat Zarrabeitia eta Amaia Esnal (Herrira); Eneritz Urkola, Jexux Mari Irazu eta Beñat Gaztelumendi (Bertsoa.com) eta Oier Araolaza (*Dantzan.com*).

izan zituen gogoan; Asier Leoz *Portobello* irratsaioko gidariak Madrildik eman zituen eskerrak bideoz –Arantxa Kaltzada Euskadi Irratiko programazio arduradunak jaso zuen saria bere ordezkari; eta Herrira mugimenduko Amaia Esnalek gogorarazi zuen ostirala zela, eta presoen senide asko bidaia luzea hastear zela une horretan –Lander Garroren *Denbora* film laburrarengatik jaso du Herrirak publikizitate arloko saria–.

Azpimarra saioaren aurkezle Maddalen Iriartek azaldu zuen hunkituta jaso dutela Telebista saria; kalean jasotako animoek eta zoriontzeez “jada badute ikurra”, adierazi zuen. Bestalde, ETBren inguruko hausnarketa plazaratu zuen: ETBk epe luze-ako proiektua behar duela

nabarmendu zuen, eta euskal hiztunek eguneroko telebista “normal” bat merezi dutela; Euskadi Irratia jarri zuen horren eredu.

ETBekin bateratsu jaio zen Euskadi Irratiak 30 urte bete ditu aurtun. ARGIAk Merezimenduzko saria eman dio “euskararen zabalkunderako tresna garrantzitsu” bihurtu delako eta jakin duelako “gero eta entzule gehiagorengana iristen”.

Txalo zaparrada eta irribarre artean amaitu zen ekitaldia. Norbere txokora itzuli zen, zerua oskarbi zela, baina jakitun bihar edo etzi euria egingo duela, eta bustitzen segitu beharko dutela euskarazko komunikazio proiektuaren alde. ■





1



2



3



4



5



6



7

(1) Gonbidatuak Atxega jauregira hurbiltzen; (2) Iban Arantzabal (Hekimen), Jon Sarasua (Garabide), Lore Erriondo (UEU), Inaki Irazabalbeitia (Aralar), Luistxo Fernandez (Sustatu.com), Mikel Irizar (Topagunea); (3) Elixabete Garmendia, Ameztoiren ARGIAko azalen karpeta aurkezten; (4) Patxi Baztarrika (Eusko Jaurlaritz - HPS), Kike Amonarriz (ARGIAko kolaboratzailea), Berdaitz Goia (ARGIAko kudeatzailea), Juan Karlos Izagirre (Donostiako alkatea); (5) Felipe Juaristik eta Arantxa Kaltzadak oparia eman zioten ARGIAri Euskadi Irratiaren izenean; (6) Gonbidatuak Xabier Letonaren hitzaldiari adi; (7) Laura Mintegi (EH Bildu) eta Cristina Uriarte (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua).

XABIER LETONA, ARGIAKO ZUZENDARIA

EITB eta herri ekimeneko hedabideak

2013ko Argia Sariak ospatzen ari gara, eta zinez esaten dizuet hemen-dik ikusten den panorama ez dela makala euskal kulturarentzat. Kanpotik etorri eta ekitaldi hau ikusten duenak, oparotasunean pentsatuko du. Baina euskal kultura, errealitate honek islatzen duena baino xumeagoa da. Bai, oparotasun materialean aski xumea da, eta hala ere gero eta aberatsago da.

ARGIAk 2011n zortzi harpidetza irabazi zituen, eta lorpen handitzat jo genuen. 2012an 40 galdu ditu. Saiatuko gara berreskuratzen, jakina, baina errealitatea hori da, bai gurean eta bai hedabideen mundu zabalean. Esan nahi du horrek ARGIA txarragoa egiten dugula? Ez dut uste, publikoki zein pribatuan jasotzen ditugun mezuengatik, produktu ona egiten dugu. Esan nahi du jendeak gerrikoa estutu behar duela eta produktuak lehenetsi.

Batek baino gehiagok esaten didan kontua da: “Baina nola jarri dezakezue hainbeste gauza Interneten doan?”. Hemen errepikatuko ez dudan argudio sorta luzatzen diet eta aurrera. Eta gaur gaurkoz hori egin behar dela uste dugu. Baina orduan, nola demontre aterako gara aurrera? Ez dugu erantzunik.

Edo bai, erantzun txikiak ditugu. Interneteko ARGIA berritu dugu eta pozik gaude. Baina erronka handia jarri diogu gure buruari. Interneteko gure irakurle kopuruak ere gora egiten du urtez urte, zorionez. Baina hara paradoxa, doan izanda ere, kosta egiten da bisitari kopurua handitzea. Eta hara paradoxa handiagoa: guretzat ez da doan. Horregatik, lehenbiziz abiarazi dugu kanpaina bat Interneten, *Pixtu ezazu ARGIA*, gure bisitariari laguntza eskatuz, irakurtzen ari dena edo ikusten duen horrek baduelako bere kostua.

Baina aldaia gora honetan datu positiboak ere baditugu, nola ez. Adibidez, CIESen 2012ko bigarren sei hileko inkestaren arabera, ARGIA



astekariak lehen sei hilekoan baino 1.000 irakurle gehiago ditu; zehatzago esateko, Nafarroan gehitutakoak. Hekimen ere sortu da, eta hor ere puntan ibili gara ARGIAkook. Ez da broma lorpena; orain tresna baliagarria zaigula erakutsi behar dugu.

30 urtetan zer eskaini dute hedabide publikoek? Zer herri ekimenekoek?

Asko hitz egin dugu Hekimenek zer egin behar duen eta horien artean dago instituzioekiko mintzakidetzak, gauza askotarako, baina lehenik eta behin diru-laguntza kopuruak eta publizitate kopuruak handitzeko. Horra gure elkartearen lehen erronka handi eta gaitza.

Aurrera begira hasi behar dugu hitz egiten hedabide publiko eta herri ekimeneko hedabideen finantzaziorik dagoen desoreka ikaragarriaz. 2012an Eusko Jaurlaritzak 132 milioi jarri zituen EITBko aurrekontuan, herri ekimeneko dozenaka komunikabideren aurrekontuetan 5 milioi.

Batzuk publikoak dira eta gu ez, baina guk argi dugu: gurea ere zerbitzu publikoa da, eta hizkuntzaren normalizazioari egindako ekarpena bada EITBrena bestekoa, edo gehia-

go. Mereziko luke unibertsitateko tesi bat baino gehiago: 30 urtetan zer eskaini dute publikoek, zer herri ekimenekoek? Ea nor animatzen den.

Ez dadila txarto interpretatu esaten ari naizena. EITB eta herri ekimenekoak, biak gara beharrezkoak, ez ditut elkarren kontra jarri gura. Ez dut nahi Jaurlaritzak EITBren aurrekontua gutxitu dezan, ez naiz ari hori eskatzen. Baina apurtxo bat logikoa irudituko litzaidake 2013an 132-5 izan beharrean, desproporzioa 132-6 izatea. Hainbeste ote da? Aurrera begira, hori eta gehiago ere lortu beharra dugu, herrigintzan gure lana funtsezkoa delako, bai hizkuntzaren garapenaren ikuspegitik eta baita herri ikuskeraren eraikuntzan egiten dugun ekarpenagatik.

Sari banaketari ekin aurretik ARGIArentzat oso garrantzitsuak izan diren bi pertsona gogoratu nahi ditut: duela hogeitau urte utzi gintuen Joxemi Zumalabek, iaz utzi gintuen Inma Gomilak. Joxemiri buruz asko idatzi da, eta ez naiz gehiago luzatuko hemen. Inma urte luzetan arduratu izan da gure soseaz, eta hori zeregin oso inportantea da edonon, baina areago diru gutxi den lekuan. Mila esker biei, bihotz-bihotzez, eta besarkada handi bana haien senideei. ■

Argia Sariak banatu aurretik emandako hitzaldia da honakoa



Urteetan ereindakoaren uzta

Edu Lartzanguren kazetariak, *Portobello* irratsaioak, Herrirak urteroko manifestazioari begira egindako *Denbora* film laburrak, *Azpiarra* telebista saioak eta Euskadi Irratiak jaso dituzte aurtengo Argia Saria. Bertsoa.com eta Dantzan.com webguneek Internet Saria elkarbanatu dute. Sei sari zazpi proiektuentzat, beraz.

| IURE EIZAGIRRE |

PRENTSA IDATZIA

Edu Lartzanguren

Prensa idatzian hasi zenetik elkarriketa generoarekin gustura, *Berria* egunkariko agenda saileko solasaldiak idazten ditu Edu Lartzanguren kazetariak duela bost urte ingurutik. *Berriak* hasieratik egin zuen ekitaldien agendan elkarriketak argitaratzeko apustua eta bere aurretik hainbat lanean aritu ziren horretan. Lartzangurenek “orojaletzat” du bere burua eta Euskal Herrian hurrengo egunean izango diren musika emanaldiak, antzezlanak, hitzaldiak, dantza erakustaldiak, ikus-entzunezkoak eta bestelako ekitaldiak izaten ditu hizpide. Eguneroko erritmoa, muga gisa baino abenturatzat du: “Askotan ezezaguna zaidan eremuan sartzeraren behartzen nau, eta deskubritzera, bat batean, gai bat izugarri interesatu zaidala betidanik”.

Dagoeneko 500-600 elkarriketa egin ditu eta igogailua.blogspot.com blogean jasotzen ari da. Denak bilduta koan, 30 bat aukeratu eta liburu batean argitaratzeko asmoa du.

IRRATIA

Portobello saioa, Euskadi Irratia

Euskadi Irratiko entzuleek nazioarteko musika berrienarekin egiten dute bat gauero *Portobello* saioan. Asier Leoz esatariaren ahotsean, 2009az geroztik ari da irratsaioa antenan. Ordubeteko saioan abestiak jartzearekin batera, diskoek, musikariez eta musika jaialdiez informazioa eskaintzen du. Konexio egokiarekin musika edonoren esku dagoen garaioan,



Ezker-eskuin eta goitik behera: Maddalen Iriarte, *Azpiarrako* aurkezlea; Jexux Mari Irazu, Bertsoa.com proiektua hasi berrian zuela; Oier Araolaza, Dantzan.com-eko sortzailea; Euskadi Irratiko estudioa; Asier Leoz, *Portobello*-ko esataria; Edu Lartzanguren kazetaria; eta Herrira-ren *Denbora* film laburreko eszena.

hori osatzen eta diskurtsoa egiten ahalegintzen da Leoz.

Musika hautatzerakoan esatariaren gustuek zeresana badute ere, gauza interesgarrien artean aukeraketa egiten du Leozek, hedabideetan toki ugari duten doinueta mugatu gabe. Musikazalea izaki, aldizkariak irakurtzeko, blogak gainbegiratzeko eta musikariekin zein musikazaleekin hitz egiteko ohitura du. “Azken

urteetan sareak izandako hedapen izugarriak ere laguntzen du, sekulako ozeanoa dago deskubritzeko”, dio. Kalitatea du helburu, inoiz kontzeptu horren erlatibotasuna ahaztu gabe.

TELEBISTA

Azpiarra saioa, ETB1

Egunean eguneko aktualitateari —batez ere politikoa eta ekonomi-

koa— lotutako saioa da Maddalen Iriartek egunero aurkezten duen *Azpimarra*. Tertuliakidez osatutako ordu erdi inguruko saioarekin hasi zen duela hiru urte eta egun ordubeteko *Azpimarra* + ere emititzen dute astearte gauero. Saio luzeagoak programari —eta kateari— eztabaida politikoa bermatzeko aukera eta ekonomiaren ikuspegi sakona eskaini dizkiola uste du Iriartek. Bolada batez, ordea, ezinezkoa izan zen alderdi politiko guztietako ordezkariak eztabaidara biltzea: “Ezin genuen ezker abertzaleko inor elkarriketatu eta iruditzen zitzaidan sarritan ezker abertzalea albiste zela. Niri ezker abertzalea interesatzen zait albiste den heinean”.

Hizkuntza ez ezagutzeak ere egiteke utzi ditu zenbait elkarriketa Azpimarran. Instituzionalizatzek euskara behar baino gutxiago bultzatu duelakoan, bultzada horren eraginez momentu oro edozein gairen inguruan euskaraz hitz egiteko gai izango liratekeen solaskideak egon beharko luketela iritzi du Iriartek: “Ez daude eta elkarriketa batzuk ez dira posible”.

INTERNET

Bertsoa.com eta Dantzan.com webguneak

Kultur jarduerak ere komunikazio proiektu propioak behar dituztela sinetsita sortu zuten Bertsoa.com 2006an. Milaka bertsoaldi, bertso, bertsolaritza albiste eta zuzeneko emanaldi geroago, bertsolaritzak etorkizunean sarean izango duen presentziaz gogoeta egiten ari dira. “Bertsolaritzari buruzko hainbat

webguneren datuen arabera, bertsolaritzak urtean 75.000-100.000 erabiltzaile izango ditu eta 500.000 bisita inguru. Sareko komunitate hori artikulatzen asmatzen badugu, bertsolaritzak berak garatutako medio propio batek edozein telebistak adinako zabalkunde ahalmena eta audientzia izango ditu”, hausnartu du Jexux Mari Irazu webgunearen kudeatzaileak.

Dantzaren inguruan informazioa eta komunikazioa bideratzea, eta dantzan dabilzanen albisteak, kezak, iritziak, eztabaidak eta gogoeak elkartrukatzeko tokia eratzea izan zen Dantza.com webgunea sortzeko arrazoia. Hamarkada bat igaro da bere sorreratik eta Oier Araolazak dioenez, “funtzionatzen badu, inguruan ekarpenak egiten dituen eta webguneari bizitza ematen dion dantzazale eta dantzari komunitatea dagoelako da”. Izan ere, medio aldetik gune xumea da eta pertsona bakarra arduratzen da bere mantenuaz.

PUBLIZITATEA

Denbora film laburra, Herrira

Presoa gelan, barrotez estalitako leihotik begira. Gaurkoan bikotea du bisitari eta azkenean, hainbeste denboraz itxarondako besarkada beroa. Bidaia nola joan den jakiteko beharra, kezka. Denbora laburrez begiztatuz dezakeen lagun zaharren argazkia, bisitariaren sabelaldean ezkutatua. Aita izango da presoa, haur jaioberria ezagutu du, kilimak egin dizkio koxkortzean, baina dena horma zikindun gela berean. Denborak aurrera egin arren, presoak gatibu diraelako.

Eta mezu argia du bisitariarentzat: “Zoazte Bilbora eta kaleak bete. Kaleak bete kartzelak husteko”.

Preso dagoenaren urteen igarotzea islatzen duen film laburrekin iragarri du aurten Herrirak urtarilaren 12ko euskal presoan aldeko manifestazio jendetsua. Lander Garrok zuzendu du *Denbora*, eta berak esana da egungo estrategia politiko eta komunikatiboak ezagutu eta diskurtsoa horien baitan txertatzen jakin beharra dagoela.

MEREZIMENDUZKO SARIA

Euskadi Irratia, 30 urte

1982ko azaroaren 23an egin zuen Euskadi Irratiak bere lehen emisioa. Harrezkero irratia eta euskal komunitateak nahiko batera eboluzionatu dutela uste du Felipe Juaristi Euskadi Irratiko zuzendariak. Egun irratia entzuteko ohiturak aldatu egin dira bere ustez, eta goizeko saioak bihurtu dira euskaldunen erreferentzia informatibo.

Urteotan irratia egiteko modua bera ere aldatu da: “Lehendabiziko aldaketa handia analogikotik digitalera pasatzea izan zen”. Interneten hedapenak eta teknologia berriek irratsaioak noiznahi eta nonahi entzutea eragin dute. “Etorkizunean irratia multimedia bihurtuko dira. Gu bagara multimedia, eduki asko ditugu Interneten. Kamerak estudioetan sartzea falta da eta hori ere egingo da”, aurreikusi du Juaristik. Programazioa egokitzea eta hori teknologiarekin uztartzea dira orain Euskadi Irratiaren erronkak. ■



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

Aldarrikapenaren erretratu linguistikoa

Tamalez, kaleak langileen aldarriz, pankartaz eta hizki handiz idatzitako mezuz mukuru dira. Lanik gabe geratu diren edo soldatarik kobratu ez dutenen elkarretaratzeei erreparatu diegu, protestan darabiltzaten karteletako hizkuntza aztertu asmoz.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

“MURRIZKETARIK EZ. Respetad los acuerdos”; “No a los recortes sociales. Gizarte eskubideen alde!”; “Prego kanpora. Prego dimisión”; “Personal de Cocinas en lucha. Privatizaziorik ez”.

Noiznahi eta nonahi ari gara irakurtzen horrelakoak. Gutxi batzuetan baino ez dira euskara hutsean;

euskaraz eta gaztelaniaz ageri ohi dira kartelak Hego Euskal Herriko kaleetan; eta sarri gaztelaniaz. Lelo horiek, kartelak, paisaia linguistikoa osatzera datoz. Eta nola prestatzen dituzte mezu horiek? Nola zehazten da grebetako eta lan uzteetako aldarriak zein hizkuntzatan egingo diren?

Hainbat sindikatutan jo dugu atea. Ondorio nagusi bat atera dugu: gauza bat da sindikatuak kanpora begira ezarria duen hizkuntza politika, eta beste bat, Gipuzkoako Urola Kostan edo Arabako lautadan enpresaren batean hautsak harrotzen direnean, praktikan alegia, pankartan mezua nola idazten den.



GORKA RUBIO / ARGAZKI PRESS



JON HERNANDEZ / ARGAZKI PRESS



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Gauza bat da sindikatuak zein hizkuntza irizpide dituzten eta beste bat kalean zer ikusten den. Argazki hauetan denetarik dago: bi eletan egindako pankarta, euskara hutsean prestatutakoak, eta gaztelania hutsean egindakoa.



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS



RAUL BOGAJO / ARGAZKI PRESS

Bi elkarretaratzeak Gasteizen egindakoak dira. Ezkerrekoan Lakuako funtzionarioak ari dira protestan, eta eskuinekoan, besteak beste, CAF, Gamesa, Corrugados Azpeitia eta Laminados Arregiko langileen manifestazioa. Eskuineko kartela, inondik ere, langile haserreturen baten uztakoa da.

ELAk eta CCOOk argi adierazi digute ideia hori. CCOO sindikatuak esan digunez, asmoa dena ele bitan egitea da eta hori transmititzen diete sindikatuko langile, ordezkari eta atal sindikalei. Lan gatazkatan, eta bestela ere bai, enpresako ordezkari sindikalak beren kabuz moldatzen dira eta sindikatuko Euskara Sailak ez du parte hartzen. Izatekotan ere, itzulpenen bat egiteko laguntza eskatzen diote sindikatuaren Euskara Sailari. CCOOk paisaia linguistikoa ele bitan egiteko oztopo handienetakoa afiliatuen hizkuntza gaitasuna da. Askok ez dakite euskaraz, eta beraz, bi hizkuntzetan aritzeko arazoak dituzte. Sindikatuaren hitzetan, “horrelakoetan Euskara Sailera edo lankideengana jotzen dute”.

Leire Txakartegi ELAko euskara arduraduna da eta sindikatuaren hizkuntza irizpidea argitu digu: “Hego Euskal Herrian gaztelania hutsez ez da inoiz egin behar”. Bi aukera daude, beraz: edo euskaraz eta gaztelaniaz, edo euskara hutsean. Badakite ez dela gauza bera Nafarroako Erriberan aritzea

edo Bizkaiko Arratian, baina irizpidea bera da. Beste kontu bat da, lehen adierazi dugun moduan, irizpidea betetzea: “Batuetan lortzen dugu eta besteetan ez. Atal sindikal bakoitzak bizitza propioa dauka eta batuetan ihes egiten digute”. Bestalde, Txakartegik azpimarratu du begiratu behar dela enpresa batzordeetan sindikatu bakoitzak duen lekua, “sindikatuak ez baitu paisaia linguistikoan eragiteko ahalmen bera bederatzitik bateko ordezkari-tza badauka edo alderantziz”.

Paisaia bai... eta euskara plana?

Edurne Larrañaga LABeko euskara idazkaria da. Hizkuntza paisaia zaindu behar den zalantzarik ez du, baina gehiago kezkatzen du enpresek euskara planik ez izateak, zuzendaritzak eta langileek osatutako euskara batzorderik ez egoteak. Barne mailan, LABek komunikazio eta lan hizkuntza euskara dela adostua dauka, beti ere errealtate sozio-linguistikoak kontuan hartuz. Politika horretara iristeko, kanpotik barrurako bidea egin dela dio, alegia, lan mundutik (lantegietan diren

ordezkari euskaldun eta euskaltza-leengandik) egiturara.

Sabino Zugazaga Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako LABeko ordezkaria da Euskotrenen. Euskara planik gabe dagoen enpresa publikoa da garraio erakundea; PSOEn agintaldian eten egin zen EAJren garaian indarrean zegoen plana. Zugazagak, Larrañagak bezala, garrantzi handia ematen dio euskara plana izateari. Paisaia linguistikoari dagokionez, eta berdin aldarrikapen garaia iristen denean, Euskotrenen LABek irizpidea garbi du: lehenengo eta nabarmenduta euskaraz, eta ondoren gaztelaniaz. Zugazagak azpimarratu du, halako egoeratan hizkuntza irizpidea betetzeko egitekoa atzeratu behar badute atzeratu egiten dutela. Enpresa batzordean ez dago horrelako konturik; ELA, LAB, CCOO, UGT, CGT, ESK eta Lankide daude, eta behin baino ez du gogoan bilera euskaraz egin zutenekoa, nahiz eta hamabi ordezkariatik sei ELAkoak eta LABekoak izan. ■



Babeslea: Hondarribiko Udala

Arrue proiektua: zer eman dion eskolak gizarteari

ARRUE PROIEKTUAK eman ditu argitara emaitzak. LH4ko (9-10 urte) eta DBH2ko (13-14 urte) EAEko ikasle guztien datuak aztertu zituzten 2011n, ikasleen hizkuntza erabilera jakiteko. ISEI-IVEIk, Eusko Jaurlaritzak eta Soziolinguistika Klusterrak hartu dute parte. Pablo Suberbiola Arrue ikerketan parte hartu duenetako bat da, eta haren esanetan, hezkuntzan urtetan dabilen profesionalarentzat datuak egiaztapena baino ez dira izan.

Emaitzak labur-labur ondokoak dira: LH4ko ikasleen artean, gela barruan, %60 aritzen dira euskaraz beti edo gehienetan. DBH2ko ikasleak berriz, %60 beti edo gehienetan gaztelaniaz. Jolaslekuan gaztelania nabarmen gailentzen da bi mailetan: LH4ko ikasleen %59 beti edo gehienetan ari zen gaztelaniaz eta DBH2n %75.

Ikasleak irakasleekin mintzatzen direnean datuak bestelakoak dira. Gela barruan, 9-10 urtekoen %74k euskaraz egiten diete irakasleei beti edo gehienetan. 13-14 urtekoen %61ek. Gelatik kanpo datuek behera

egiten dute: 9-10 urtekoen %64 dira euskaraz ari direnak eta %52 DBH2koen artean. Pablo Suberbiola elkarriketatu du *Berria* egunkariak eta ikerketaren balorazio interesgarriak jarri ditu mahai gainean. Ikasgeletatik jolastokietara euskararen erabilerak nabarmen behera egiteak harritu egiten du bat baino gehiago, eta kezka sortu. Suberbiolak nahiago du beste begi batzuekin ikusi ikasgela-jolastokia binomioan gertatzen dena: “Ez da paranormala jolastokikoa. Zuzenagoa da datuei hola begiratzea: ez zenbat jaisten den gelatik jolastokira, baizik eta zein den batez bestekoa gizartearen eta zer plus sortzen duen eskolaren eraginak. Nola sortzen da plus hori? Hori da galdera. Nola euskara lehen hizkuntza ez duen ikasleak egunero euskaraz egiten duen ikaskideekin eta irakasleekin. Hori lorpen handia da”. Gizarteko argazki linguistikoa ezagututa, jolastokikoa normalizat du Suberbiolak: “Jolastokian ere beharko luke [euskararen erabilera handiagoa]? Bai, baina ez da gauza automatikoa. Nola

ikusten dituzte beren futbol ereduak? Erdaraz egiten dute jolaslekuan. Logikoa litzateke bestela egitea? Soziolinguistikoki beste zerbait espero dugu?”.

Arrue proiektuak 9-10 eta 13-14 urteko ikasleen hizkuntza erabilera aztertzeaz gain, erabilera areagotzeko balio dezaketen ondorio orokorrak eskaini ditu, alegia, nolako interbenzio aukerak dauden eskoletan hizkuntza ereduaren eraginetik at. Emaitzek diotenez, eskolaz kanpoko jarduera antolatuen eremuak hizkuntza erabileran eragiten du, eta beraz, eremu horretan euskarak toki gehiago izatea bultzatu beharko litzateke.

Komunikabideak eta kultur kontsumoa dira beste esparru inportantea, batez ere A eta B ereduakentzat.

Ikerketak azpimarratu duen hiru garren eremua irakasleen arteko eta ikastetxeko bestelako langileekiko hizkuntza erabilera da.

B ereduak ikasleei begira, euskaraz aitzeko gaitasuna bera hobetu beharko litzateke eta D ereduaren kasuan hizkuntzarekiko motibazioa landu.

TERMOMETROA • EKONOMIAREN TALAIAN

Boterearen kontrako sindikatua: abertzalea eta antikapitalista

IBERDROLAKO PRESIDENTE Sánchez Galánek berriki esan du sindikatuak inoiz baino beharrezkoagoak direla. Davos hirian munduko elite kapitalistarekin bildu den Galánek sindikatuek duen ikuspegiak, ez du zerikusirik sindikalgintza abertzaleak sustatzen duen eredu sindikalarekin, ELAren 13. Kongresuan ikusi den bezala. Davoseko eliteek bezala, Galánek nahi du sindikatuak kapitalaren “koltxo” izatea, burokrazian eroriak, lausengatuak, diruz lagunduak... Sistema kapitalista zalantzan jarriko ez duten sindikatuak nahi ditu. Aldiz, etorkizunean langabezia, pobrezia eta murrizketa sozial gehiago izango direla jakitun, ELAren Kongresuan boterearen kontra egingo duen sindikalgintza abertzale eta antikapitalista aldarrikatu zuten, politika kapitalistari eta hura sostengatzen duten politikariei aurre egingo diena.

105.312 afiliaturen indarra duen ELAk sindikatuen batasuna ekarriko lukeen prozesuaren alde egin du,

justizia soziala defendatzea helburu, eta erakundeei eskatu die “Espainiako Gobernuaren dekretuei planto egitea, eskubideen murrizketa eta babesgabetasun soziala handitzea besterik ez dakartelako”. Sindikatuen iritziz, “desobeditzea burujabetzaren aldeko apustua da, eta gizartearen gehiengoaren aspirazio eta beharrek bat egiten du”. Apustu gogorra eta zaila da, baina ez ELAren soilik, baita gainerako sindikatu abertzaleena ere; sindikatuen arteko ekintza batasunaren oinarri izan liteke etorkizunean. Horren berme dira azken hiru urtean egindako bost greba orokorrak.

ELAk buruzagi umil eta zuhurra den Valentin Bengoa jesuitak, jadanik erretiratu, zerikusi handia du sindikatuen abertzaletasun eta antikapitalismo horrekin. Mereziko luke herritarren omenaldi eta onarpena!

Juan Mari Arregi



Mali-Azawad: gerra inperiala etxe atarian daukagu

Afrika erdialdeko Mali idor txiroaren jabe egiten ari ziren islamista fanatikoei, Europatik Frantziak geldiarazi dizkie oinak militarrek bidalita, norbaitek egin behar zuen. Horra Frantzia eta Europako herritar askok sinetsi nahiko lukeen abentura. Polita litzateke, baldin eta ahaztuko bagenu orain arte gertatuen eta laster jazoko direnen kate-begi bat dela.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

DANIEL COHN-BENDITEK GARRATZ aurpegiratu zion Europako Legebiltzarrean Catherine Ashton diplomazia europarraren buru izanari: “Zuk diozu gerra hau guztion kontua dela. Mundu guztiak diosku gauza bera. Baina han ez dago soldadu frantsesak baizik. Eta frantsesei esaten zaie: ‘Guk bidaliko dizkizuegu erizain batzuk, baina hil, zuek hil zaitzatela’”. Frantzian gehienek sinatuko zituzten hitzok.

Europa osoan hedabide nagusiek funtsean gauza bera diote, norbaitek uxatu behar zituela islamista fanatikoak Mali bezalako herrialde batetik. Hortik aurrera kostearen kalkuluak hasten dira: Afrika erdialde hori geopolitikoki Frantziak kontrolatzen badu, hango moneta bera Paristik ezarrita, etekinak konpainia frantsesentzako, orduan gerra berak egin dezala.

Antzekoa gertatu bide zaie aljeriarrei, frantsesek Malin gudua piztu eta biharamunean Aljeriako Ain Amenas inguruan gerrillariak gas hobia eraso, langileak bahitu eta sekulako triskantzatza antolatu ostean Aljeriako askoren arteko giroa honela mamitu du Kamel Daoud idazleak: “Bat batean ahaztu ditugu errepresioa, gehiegikeriak, estatu kolpeak, jeneralak eta haien semeak. (...) Munduak odol isurketa aipatu duen artean aljeriarrok esaten genuen gaiztoen kontra harresia eraiki dela”.

Kontua ez da, ordea, hain sinplea. Une batean gertakizunen gogorak edo potentzia handiek erraz saltzen

дутен propagandak ahaztarazi arren, geopolitika, interes ekonomikoak eta azken urteotako historia alde batera utzirik ezin dira ulertu gertatzen direnak, ez eta ere ondoko urteetan gertatuko direnak.

Glenn Greenwald aditu iparramerikarrak *The Guardian* egunkarian azaldu du titulutik: *The bombing of Mali highlights all the lessons of western intervention*, hots, Maliko bonbaketek erakusten dituzte Mendebaldearen interbentzioen irakaspen guztiak. Irak, Afganistan, Pakistan, Yemen, Libia, Somalia eta Filipinen ondolik, Malikoa da mendebaldarrek musulmanak bonbakatzen dituzten zortzigarren herrialdea.

Hasteko, dio Greenwaldek, Maliko esku hartzea aurreko beste baten ondorioa da. Libian Gadafi agintetik kentzeko eraso garbia eta eraginkorra izan zela uste zutenek orain ikasiko dute Mendebaldeko estrategek epe laburreko kalkuluak egiten dituztela. Afganistanen gertatu bezala, Libiako gerrak borrokari berriak esportatu ditu.

Bestetik, orain Bamakoko gobernuaren eta frantsesen kontra ari diren

eliteko gerlari asko AEBek edo Frantziak entrenatutakoak dira, etsaien aldera pasatu direnak. Honetan ere Afganistan eta Irakeko eredu bera, Mendebaldeak gerra egin behar berak lehen elikatu eta armatutakoei.

Hirugarren, dio Greenwaldek, “zozokeria hutsa da sinestea AEBek edo bere aliatuek jarraitu ahal izango dutela mundu osoan herrialde bat eta gero bestea bonbakatu eta musulman errugabeak hiltzen, aldi berean beraiek jasan gabe atentatu ‘terroristak’”.

Afrika frantses-hitzun hurbil hori

Izatekotan liberal bai, baina oso ezkertiarizat jo behar ez den Greenwaldek dio azkenean: “Malin frantsesek, agian AEBen laguntzarekin, burutu bonbaketek garbi erakusten dute Mendebaldearen esku hartzea nolakoa izaten den. ‘Terrorismoaren kontrako gerrak’ [kakotxak egilearenak dira] bermatzen du betikotzen dela hain zuzen ere eten gabe bere etsaiak sortzen dituelako eta suak betikoz garretan jarrai dezan erregaia dakarrelako”.

Geopolitikaren ikuspegitik, Frantziak aurre egin behar dio Maliko larrialdia konpontzeari beti aldarrikatu duelako Afrikako eskualde honen kontrola berari dagokiola. Al Kaidaren kontrako gerrari ekin ziotenetik AEBek ere gero eta gehiago sartu dute muturra Sahel zaballean, baina Parisek tinko eutsi dio Afrika frankofonoaren buruzagitzari.

Pariseko diplomazian garrantzia berezia izan dute beti kolonia ohiok eta nekez dago hauetan mugimendu politikorik Hexagonoaren kontrolpetik ihes egindakorik

Agence France Pressentzako Issouf Sanogok egin argazkian (egile berarena da soldadu frantses bat buru-hezurrez mozorrotuta erakutsi duen beste famatu hori ere), Frantziak Malira bidalitako tropen unitate bat bertako herritarren aurrean pasatzen. Zuhaitzen hostoen artetik sartzen diren eguzki errainu horiek irudiak badu halako film eite bat, atzeriko eliteko militarrek beren parafernalia guztiarekin doazela harri txintzarrezko errepidean barrena hautsak harrotuz, lekuko herritarrek –menturaz aita-alabak– bazterretik isilik so. Gatazkaren xehetasunak ongi eman ohi dituen ingelesezko Wikipediaren arabera, Bamakoko Gobernuaren, frantsesen eta Afrikako lagunen artean 23.000 militar ari dira alde batetik eta bestetik, 6.000 inguru islamisten eta tuaregen artean, erdi eta erdi. 2.902 kilometro besterik ez dago Iruñetik Maliko Tombukturaino.



Afrikako mendebalde eta erdialdeko 14 estatuk darabilte CFA libera edo frankoa, tartean Mali eta Nigerrek, antzina Frantziako libera-ekin zuen bezala baliokidetasuna, orain Frantziaren bidez euroari dagokio loturik.

Monetari josirik datozen harreman ekonomikoak, emigrazioa, frankofoniak ezarritako hizkuntza... ia dena daukate herrialdeok Frantziari lotua. Kaserna eta militar ugari ere bai. Pariseko diplomazian garrantzia berezia eduki dute beti Afrikako kolonia ohiok eta nekez dago haue- tan mugimendu politikorik Hexago- noaren kontrolpetik ihes egindakorik.

Mali eta desertu ertzeko bizimo- dua partekatuz senide ia bikia duen Nigerrek azken urteotan antzeko arazo eta gertakizun ugari bizi izan dituzte.

Alde batetik Amazigh edo Tuareg jendearen matxinaldiak. Kolonia frantsesei estatu moduko indepen- dentzia ematerakoan, munduko

beste eskualde ugaritan legez, leku- ko berezitasunen ardurarik gabe ezarri zitzaizkien mugak. 2008an ARGIAk orriotan bertan “Mali eta Nigerreko tuaregak tiroka basamortu- an” argitaratu zuenetik gauzek ez dute han askorik egin hobera.

Kronika hartan aipatzen zen gatazka sugai berri batek berotzen zuela: uranioak. Industria nuklea- rrean munduko txapeldun nahi duen Parisek asko dauka jokoan Niger eta Malin, uranio hornitzaile nagusiak horietan dauzkalako Areva enpresa multinazional publikoak. Kronika honen ondoko orrian ira- kur daiteke Rue89 gunean Stéphane Lhommek eskaini *Guerre au Mali: sécuriser notre approvisionnement en ura- nium* txit argigarria.

Niger eta Malik berdintsu nozi- tzen dituzte ere goseteak behin eta berriz. Saheleko herrialdeok, antzina zibilizazio inportanteen habia izan arren, gaur estatu kebratuak izatea loturik dago bai kolonia zirenean

baina baita geroztik balizko estatu independenteen jabe izanik antzina- ko metropoliak, Munduko Bankuak eta Nazioarteko Diru Funtsak ezarri politika ekonomikoekin ere.


Erljio zaharren bertsio integris- tenek indar hartu baldin badute Sahelen, potentzia kolonialek, kasu honetan Frantziak Europar Batasun osoarekin, ezarritako garapen ere- duak porrot egin duelako da. Gose- tea, txirotasuna, eremu zabalen desertifikazioa eta emigrazioa dira ondorio, desegituraketa osoaren baitan.

Frantzian oso ezaguna da testui- guru batean baino gehiagori egokitu izan zaion kanta afrikar hau: “*Mama- dou m’a dit / Mamadou m’a dit / on a pressé le citron / on peut jeter la peau*”, (Mamaduk esan dit / Mamaduk esan dit / zukutu dugu limoia / bota lasai azala). Zuku- tutako zitroinen garratza dastatu behar du orain Europak. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Frantziako Estatuak Malin abiatutako interbentzio militarren benetako kausa energia baliabideak segurtatzea da, Stéphane Lhomme Rue89 webgunean argitaratu duenez. Artikulua osorik euskaratu du Iñaki Etxelekuk, gure webgunean publikatua. Horren hainbait pasarte dituzu jarraian.

Maliko gerla: nola zaindu Frantziaren uranio hornitzea

Stéphane Lhomme

♦ FRANTZIAKO NUKLEARRAREN BEHATOKIKO ZUZENDARIA

2013KO URTARRILAREN 11n, Frantziako Estatuaren armada eskua sartu du Malin, talde islamista armatu batzuek Bamakora buruz abiatu dituzten mugimenduen ondorioz. Badira hilabeteak talde hauek beren esku daukatela Mali iparralde, eta hara non, omen, ausartu diren herrialde osoaren okupatzeko.

Nork sinets dezake zinez, operazio hau “Maliko demokraziaren aldekoa” dela? Hamarkadak baditu, herrialde horietako erregimen erosiek zangopilatzen dutela. Hauek Frantziarengandik azkarki sustengatuak direlarik. Beraz, zergatik ote, halako bat bateko urgentzia “demokratikoa”?

Halaber, nork sinetsiko du “eskualdearen babestea” dela helburua? Egiazko helburua da Frantziako Estatuaren zentral nuklearren uranioz hornitzearen babestea: uranio hori, Niger iparraldeko meategietan ustiatzen baitute. Basamortu guinea da, mapa geografikotatik marra soil batek bereizten duena Malitik.

Artetik errateko, azpimarraztekoa da botere kolonial ohiak zein perbertsoak izan diren, zentzurik gabeko muga horiek marrazteko mementoan, lekuko populuak batere kontutan hartu gabe, eta inguru guztiz bitxiak dituzten herrialdeak asmatuz: Niger eta Mali; biak ere harek ordulari baten itxurakoak dira. Hego-sartaldeko eremu bat hiri buruarekin, arras

bazter emana eta gehienbat basamortuz egina den ipar-sortalde eremu handitik urrundua.

Dudarik gabe, indar kolpe neokoloniala da hau, itxura egiteko, mementoko Maliko lehen-dakariaren laguntza eskaera batekin mozorrotu bada ere. Lehendakari horrek sinesgarritasunik ez duelarik, 2012ko martxoaren 22an egin den armada-eren estatu kolpe baten ondorioz baita gobernu horretan. Berriz ere diogu ez diegula sinesgarritasun izpirik ematen fundamentalista lanjerosei. Droga eta arma salerosleak direnak gainera, jende zauritzeko eta hiltzeko lotsarik ez dutenak.

Bizkitartean, “demokrazia-aren aldeko” esku sartze militarren ipuina ez dugu onartzen. Jada askotan erabili aitzakia da, bereziki AEBek nahi izan zutelarik petrolio iturriak bereganatu. Eta hara non berriz agertzen den, Frantziak bere errektore nuklearren uranioz hornitzea bermatu nahi baitu. Anartean, errate baterako, Rafale gerra hegazkin baten kostua, orduko 27.000 €koa delarik, azpimarra daiteke nuklear jatorriko argindarra, uste genuena baino askoz garestiagoa dela...

Bukatzeko, berriz ere, begi-bistakoa da atomoak eta Estatu arrazoiak ez dietela ingurumenari eta bizidunei kalte egiten baizik, baita demokrazia-ri ere. ■



**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

Gasteizen euskarazko hauek ez galdu

GOZATU EUSKARAZ LIBURUTEGIETAN!

*Gonbit-txartelak astebete lehenago

ALDABE

- > **Photo-Up Lantegia**
Otsailak 23, 10:30 (8 - 12 urte)
- > **Idazten ari dela irakurtzen duen idazlea Iban Zaldia**
Hitzaldia
Otsailak 19, 19:30

ARANA

- > **Ponpoi bizidunak**
Lantegia
Otsailak 19, 18:00 (4 - 8 urte)

HEGOALDE

- > **Dinosauroak**
Lantegia
Otsailak 27, 18:00 (5 - 7 urte)

IPARRALDE

- > **Album familiarra**
Ipuin kontalaria
Otsailak 21, 18:50 (4 - 7 urte)
- > **Ez naiz ni Karmele jaio**
Hitzaldia
Martxoak 5, 19:00

JUDIMENDI

- > **Liburu batean**
Ipuin kontalaria
Otsailak 20, 18:00 (4 - 8 urte)

LAKUA

- > **Kantari-On**
Musika
Otsailak 23, 12:00 (2 - 4 urte)

PRINCIPAL ANTZOKIA

- > **LINGUA NAVAJORUM**
Otsailak 14, 20:30
- > **BENITO LERTXUNDI**
Otsailak 22, 20:30
- > **MUNDUARI ITZULIA**
Familiarentzako antzerkia
Martxoak 3, 18:00

KORRIKA KULTURALA

- > **Korrika inauteri gala**
Otsailak 8, 20:00. Jimmy Jazz
- > **XXI. mendean euskara ikastea. Nola ikasi?**
Otsailak 14, Hitzaldia. Bibat. 19:00
- > **Euskarazko musikaren astea**
Otsailaren 25etik martxoaren 3ra

ARABAKO BERTSOLARI TXAPELKETA ABIAN DA!

Maite duzun hura, euskaraz!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udaia

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Legeetatik at, legea hautsi barik

KATALUNIAN hasi da independentzia-
ranzko oztopo laster-
keta. Orain, gober-
nuak badu legitimitate
instituzionala errefe-
renduma deitzeko eta
ez nolanahiko gehien-
goarekin: 85 adieraz-
penaren alde eta 41
aurka (gehi CUPeko
bi abstentzio). CiU-
ren eta ERCren akor-
dioaren arabera, erre-
ferenduma 2014an
egingo da. Noiz,
ordea? Data bilatu
behar. Gero erabaki dezatela katalu-
niar herritarrek eta kito. Horra
demokrazia.

Hala beharko luke, baina ez da
hain erraza izango. Lehenik eta
behin, Artur Masek Madrili erre-
ferendumerako baimena eskatzen
dionean, Espainiako Gobernuak
debekatu egingo du. Generalita-
teak helegitea jarriko du eta legez-
ko tresna guztiak agortu, baina
badaki bide horretatik jai duela.
Gaur egun indarrean diren lege-
etatik at egin behar du indepen-
dentiaren lasterketa, iragan 23an
Parlament-ean lortutako babes-
arekin.

Eta nola antolatu erreferendu-
ma debekatzen bada eta legearen
aurka jo barik? Hainbat formula
egon daitezke, baina bada hipotesi
sendo bat: 2014ko uztailaren 8an
egitea. Europako Legebiltzarrera-
ko hauteskundeak dira orduan eta,
dena antolatuta dagoela baliatuz,
Artur Masek dei ditzake hautes-
kunde aurreratuak egun horretara-
ko. Independentziaren aldeko
alderdi guztiak batera aurkeztuko
lirateke eta listo, horra baiezkoa-
ren blokea, botoen erdia baino
gehiago lor dezakeena. Ondoren,



Gobernu berriak independentzia
aldarrikatuko luke. Burujabetza
politikoa lehenik eta ondoren
burujabetza juridikoa. Egun haue-
tan asko hitz egiten ari da bi kon-
tzeptu hauei buruz Katalunian eta
independentistek behintzat, argi
dute ezin dela bigarrena eskuratu
lehena indarrean jarri barik, eta
horretarako ez dela Madrilen bai-
menik behar.

Eta orduan, listo? Ez, orduan
hasiko litzateke independentzia
ezagutzeko aldapa gora, eta hori
zailagoa da, estatuei ez zaielako
samur egiten kaltetutako estatua-

*Alemania Europar
Batasunari esker ari da
lortzen bi Mundu Gerrekin
lortu ez zuena*

rekin adostasun bako prozesuak
onartzea. Horra Kataluniako
diplomaziaren desafioa. Madrilek
argi ikusi du jokaldia eta, beste gai
batzuetan legez, PPK iragarri du
jada autonomien atzerriko jarduna
legez kontrolatu eta murriztuko
duela.

ESTATU berri bat
Europar, hori aldarri-
katzen du katalanis-
mo independentistak,
Europar Batasunean
zehatz mehatz, inde-
pendentista eskozia-
rrek bezala. Herri eta
estatu asko daude
EBko atarian, ate
joka, noiz eta EBren
batasuna eta senti-
mentu europaralea
bere sorrerako ahule-
netakoa denean.
Horren erakusleeta-
koa da David Came-

ron britainiar agintariak besapetik
atera berri duen EBrekiko errefe-
rendumarena. Eta EBren egungo
norabidean, oso posible da haren-
gan sinesmen handirik izan ez
duten ingelesek berau uztea.


Hara paradoxa, EBren sorrera-
ko arrazoi nagusietakoa Alemania
integratzea —eta hala mehatxu gisa
indargabetzea— izan bazen, orain,
Troyako zaldi gisa, germaniarrek
EBko agintea hartu dute. Josep
Fontana historialariari urtarrileko
LARRUNEN egindako elkarrizketan
esaten den gisan, Alemania Euro-
par Batasunari esker lortzen ari da
bi Mundu Gerrekin lortu ez
zuen.

XX. mendeari gaur egunetik
begiratuta, eta ñabardurak onar-
tuta ere, honek baditu bi zati
nabarmen Europar: lehen
mende erdia gerra eta krisi eko-
nomikoarena da, eta bigarrena
bakea eta ongizate estatuarena.
Errealitate horien gainean eraiki zen
EB eta zutuin horien erorketak ekar
dezake bere hondora-
tzea, batez ere Alema-
niak bere austeritate
politikak inposatzen
jarraitzen badu. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Andra Mari Jatetxea

2 lagunentzat afaria

Elexalde Auzoa, 22
Galdakao BIZKAIA

www.andra-mari.com

1




Donostiako Aquiriuma

4 harpidunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquiriumss.com

2



Zintzoen saldoan

Jon Alonso

5 liburu opari

Txalaparta Argitaletxea
Tafalla NAFARROA

www.txalaparta.com

3



Artez euskara zerbitzua

2013
5 mahai tako

Luzarra 10 - 2 Sol.
Bilbo BIZKAIA

www.artez.net

4



888 txiste Kike Amonarriz

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2353. Argia)

BESARO Landa Hotela

• Iker Elozegi (Hazparne)

BERIAIN 19+2 Liburuxka

- Itziar Unanue Unanue (Zarautz)
- Mikel Mendizabal Arnaez (Bidania-Goiatz)
- Traparango Udal Euskategia (Trapagaran)
- Mikel Arrazola Aranzadi (Donostia)
- Alfredo Navarro Los Arcos (Iruñea)

OKATXU Komikia

- Aloña Akuna Hortorio (Oñartzun)
- Koldo Atola Kortajarara (Donostia)

EUSKARA - FINDANDIERA Hiztegia

- Rosa Mari Borda Egia (Azpeitia)
- Adunako Udal Liburutegia (Aduna)
- Jose Aierbe Mendizabal (Beasain)
- Jose Ignacio Villar Saez (Bilbo)
- Jon Mikel Barandiaran Arratibel (Errenteria)

ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA Aisiagenda

- Luis Mari Telletxea Lezeta (Segura)
- Xabier Arrizabalaga Larrinaga (Ondarroa)
- Edurne Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)
- Aitor Zuberogoitia Espilla (Durango)
- Joxe Aizpurua Iruin (Hernani)
- Koldo Atola Kortajarara (Donostia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO


Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com

